



txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

3

**Ez daukanak ongi ohi daki
edukitzea zein den ona**

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 5. maila)

TXANELA 5: HIRUGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDAREN ZIRIBORROA

“EZ DAUKANAK ONGI OHI DAKI, EDUKITZEA ZEIN DEN
ONA...”

Unitatearen haria: Unitate honetan, planetako biztanleen arteko desberdintasunen eta lurralde pobreenetan bizi direnek dituzten arazoek berri izateaz gainera, gizatalde eta kultura aniztasunak eta horien guztien arteko harremanak ematen digun aberastasunaren berri ere izango dugu.

Sekuentzia tematikoaren laburpena:

MUNDUA IRUDIKATZEN ETA BERTAN KOKATZEN!

Munduko mapak, lurraren irudizko lerro eta puntuak eta koordenatu geografikoak: latitudea eta longitudea.

GURE PLANETAKO BIZTANLERIA

Munduko biztanleria eta bere bilakaera. Gainpopulazioaren inguruko hausnarketa. Populazioaren banaketa munduan: biztanle-dentsitatea. Adin-piramideak, grafikoak. Kulturantzitasuna eta kulturen arteko elkarrengaitza. Hainbat kultura-adierazpen. Munduko jolasak.

MUNDUKO ABERASTASUNAREN BANAKETA

Munduko aberastasunaren banaketa: iparralde eta hegoalde. Globalizazioa eta multinazionalak. Ziklogramak. Multinazionalak eta gu. Aberastasunaren kontzeptuari buruzko hainbat hausnarketa. Migrazioak eta etorkinak. Gizakien eskubideak. Taldearekiko eskubideak eta betebeharrak. Desoreka eta irtenbideak. Elkartasuneko ekimenak: bidezko merkataritza, harrera-etxeak.

“**Nomadak**” TX euskal filma oso ondo txertatzen da gai honetan kultur aniztasuna, kulturarteko eragina eta harremana oso era ederrean islatzen baitu. Eskuratzetik edo ikasleekin nonbait ikusterik izango bazenute, ez galdu aukera.

Proiektua(k): Munduko arazoei eta kultura aberastasunari buruzko prentsa-txostena osatu eta aurkeztu, unitatean landu ahala jasotako kultura ezberdinen inguruko materialekin eta sortutako artelanekin antolatutako erakusketan.

Aukerako proiektuak: “Erderakadak zuzendu eta euskara aberastu”. “Munduko jolasen astea”.

Urte osoko proiektuak: Lehenengo gidan proposatzen genituen txokoekin jarraitu, edota, egoki ikusiz gero, besteren bat martxan jar dezakezue.

ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren eta besteen kultura eta ohiturekiko begirunea eta errespetua. • Gertakizunen gaineko iritzi ezberdinekiko errespetua.
--	---

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	<p>Gaiaren ipuina: “Hego haizeak iparrerantz jotzen duenean”: Mixel Murua.</p> <p>Txistek. <i>Txorakikeriak</i>. Kike Amonarri, Xabier Telleria.</p> <p>“Ni bezalakoa” olerkia. J. K. Igerabide.</p> <p>Ipuin literarioa: “Ipar Amerika, Japonia, Hegoamerika eta Afrikako kondairak” izeneko saila. Argitaletxe elkartuak.</p> <p>“Zuriak eta beltzak, eta, galdera olerkiak”. Joxan Ormazabal.</p> <p>“Note book”. Pako Aristi.</p>
Arte hezkuntza	<p>Unitateko abestiak: “Hau mundua”. Joxan Ormazabal.</p> <p>“Irria”. Pantxoa eta Peio.</p> <p>“Mazisi Okeita Denbelek”. Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruza.</p> <p>“Iñaki, zer urrun dago Kamerun”. Zarama.</p>
Ingurumena	<p>Euskal Herriko biztanleria-dentsitatea.</p> <p>Euskal prentsa eta egungo berriak.</p> <p>Hiztunak eta hizkuntzak: eleaniztasuna, ama-hizkuntza, euskararen erabilera.</p> <p>Multinazionalak eta gu.</p> <p>Inmigrazioa, migrazioa eta etorkinak.</p> <p>Herrien arteko elkartasun-ekimenak.</p>

EDUKIAK

		HIZKUNTZA		INGURUNEA		
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	JARRERAK
1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA	A1, B1, C	Talde-elkarrizketa - Bozeramalea	Talde-elkarrizketa (4, 20, 39, 40, 45, 46) - Gidoiari (galdetegia) jarraituz aritzea - Sintesia (bozeramaleak) - Arauak - Solaskideei behatzea eta horiek balioestea		Aurre-ezagutzak; bizi-itxaropena; aberastasuna; migrazioak eta etorkinak; giza eskubide unibertsalak; bidezko merkataritza	Parte-hartze aktiboa Errespetua
	B1		Iritzia adieraztea eta arrazoitzea (17, 20, 28, 47)		Munduko biztanleria (gainpopulazioa), bizi-itxaropena ; inguruko hizkuntz errealitatea ; gure inguruko elkartasun-ekimenak	Jarrera kritikoa
	A2, B1	Ahozko azalpena	Ahozko azalpena -Planifikazioa <ul style="list-style-type: none"> ▪ Entzuketa/Irakurketa arretatsua. Hauta lanerako irakurketa ▪ Memorizazioa ▪ Euskarri idatziak erabiltzea: krokisa - Azalpena burutzea		Paraleloak eta meridioak (12)	Jakin-mina
	A2, B1		Albistea: ahozko kontaketa (18)			
	A1		Entzuketa arretatsua (18, 47, 48) - Idatzizko oharrak jasotzea			

HIZKUNTZA				INGURUNEA		JARRERAK
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	
2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA				Mapei behatzea, horiek konparatzea eta interpretatzea (11)	Munduko mapak (11)	
				Mapetan kokatzea, leku jakinen koordenatuak bilatzea Koordenatu jakin batzuk emanda, lekuak aurkitzea (13, 14)	Koordenatu geografikoak: latitueda eta longitueda (13, 14)	
	A2	Informazio-iturriak - Egunkariak, aldizkariak, hiztegi entziklopedikoak, atlasa	Informazioa bilatzea (15) - Atlasen aurkibidea erabiltzea			
			Puntutako grafikoa eraikitzea (16)		Munduko biztanleriaren bilakaera	
	A2	Prensa idatzia: egunkaria - Lehen orrialdea - Egunkari digitalak Prentsako testuak - Komunikazio-asmoa - Motak: albisteak, erreportajea, elkarrizketa, iritzi-artikulua	Irakurtzeko teknikak (18, 41) - Gainbegiratua - Izenburuetan oinarrituta edukiari buruzko hipotesiak egitea			
	A2, B2	Albisteak - Gaia, elementuak (zer, nor, non, noiz, zergatik) eta egitura (titularra, sarrera, gorputza)	Albisteak: sintesi-fitxa (18) Albisten idazketa (50) - Planifikazioa: komunikazio-asmoa eta gaia hautatzea; informazioa biltzea; gidoia osatzea - Testualizazioa: zirriborroa idaztea - Berrikusketa: arauen aplikazioa; zuzenketa ortografikoa, hiztegiaren erabilera; zuzenketa-markak - Edizioa: edizio-arauen aplikazioa			
				Biztanle dentsitatearen kalkulua (19)	Biztanle-dentsitatea (19)	
			Datu-taulen interpretazioa (19)			

			Barra-grafikoak egitea (21) Adin piramideen interpretazioa (22)	Bizi-itzaropena (20, 22), adinaren araberako populazioaren banaketa	
				Kulturantzitasuna, kulturen arteko eragina	Errespetua (24)
	A2		Irakurketa erreflexiboa	Munduko jolasak	Elkarlana (32, 33)
	A2		Irakurketa erreflexiboa eta kritikoa	Munduko aberastasunen banaketa: iparraldea eta hegoaldea Globalizazioa eta multinazionalak	Hausnarketa eta jarrera kritikoa (33, 35,36)
				Produktuen markak eta norbere jokabidea	Jarrera kritikoa, lagunetikoen enpatia (38)
			Zuzendutako hausnarketa - Galdetegiari erantzutea, ondorioak idatziz jasotzea		
			Ziklogramak interpretatzea eta egitea (37)	Ekoizpen-irabazien banaketa	Hausnarketa eta jarrera kritikoa (37)

HIZKUNTZA				INGURUNEA		JARRERAK
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	
3. HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA	C, A2, B2	Erdarakadak, erabilera okerrak: esamoldeak (<i>adarra jo, baso bat ur/ur-baso bat</i>), aditzaren kokapena (<i>Dago maisua/Maisua dago</i>), izen zenbakarriak eta zenbakaitzak (<i>asko/handia</i>)	Erabilera-arauen ondorioztatzea edo/eta aplikazioa (29)			Efortzua
	C, B2	Hitzez hitzeko aipamenak albisteetan - Kakotxak, marrak Gertaera eta zergatia - Zergatia adierazteko erlazio-hizkiak edo -hitzak: <i>-t(z)eagatik</i> , <i>-elako</i> , <i>-ela-eta</i> , <i>bait-</i> , <i>-eta</i> , <i>-enez gero</i> , <i>izan ere</i> Albistearen alderdi formalak - Letra-tainak eta motak (arruntak, bereziak) - Zutabeak - Titularraren eta kazetariaren izenaren idazkera	Araua aplikatzea (50)			Autonomia
4. HIZKUNTZAREN GIZARTE DIMITSIOA	C, B1	Munduko hizkuntz errealtatea: eleaniztasuna, hizkuntza handiak eta txikiak, hiztun elebidunak eta eleanitzak, hizkuntza nagusiak, ama-hizkuntza Euskararen erabilera: abantailak, zailtasunak	Aukerako (hauta lanerako) irakurketa (28)			Euskararen erabilerarekiko jarrera baikorra (28)

HIZKUNTZA				INGURUNEA		
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	JARRERAK
5. LITERATURA	A2	Munduko kondairak, ipuin zaharrak - Itzulpenak eta itzultzaileak; egokitzailak	Atseginerako irakurketa (27)			Irakurzaletasuna
	B1		Txiste-kontaketa (30)			
	A2	Abestia Ipuina - Narratzailea: aditzaren pertsona, kakotxak eta marra	Irakurketa erreflexiboa (4, 42, 43) - Gaia, komunikazio-asmoa, testu-mota identifikatzea - Hitz, esamolde eta esaeren esanahia testuinguruaz baliatuz interpretatzea - Gertaera nagusiak identifikatzea - Testuko edukia norbere bizipen, ideia eta aurre-ezagutzekin lotzea		Etorkinak - Integrazioa; hizkuntza (euskara) integrazio faktore	Elkartasuna, besteen egoera eta bizipenenganako interesa (42,43)
	A1		Abestien interpretazio kritikoa (42) -Hizkuntzaren erabilera baztertzailak identifikatzea			Jarrera kritikoa (42) Errespetua (42)
	A2		Olerkien irakurketa kritikoa (44)			
	A1, B2	Bertsolaritza - Gaia eta gai-jartzailea - Kopla handia, zortziko handia	Entzuketa arretatsua (48) -Edukiari buruzko aurrerapenak egitea -Aurrerapenak egiaztatzea Zuzendutako bertso ekoizpena (48)			

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 5

IKASLEAREN LIBURUA - 3. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	111
4		<i>Hau mundua</i>	5	113
9		Prentsa txokoa	7	115
11		Mundua irudikatzen	10	118
12		Paraleloak eta Meridianoak	12	120
13		Latitudea eta longitueda	13	121
15		Atlas eta hiztegi entziklopedikoak	14	122
16		Munduko populazioa	15	123
18		Egunkarietako testu-motak	16	124
18		Albisteen azalpena	16	124
19		Populazioaren banaketa	17	125
20		Bizi-itzaropena	19	127
24		Hainbat kultura munduan	22	130
26		<i>Entzunaldia</i>	25	133

26		Abesbatza	25	133
29		Esazu horrela	30	136
36		Multinazionalak	33	140
40		Etorkinak	36	144
42		<i>Iñaki zer urrun dago(en) Kamerun</i>	37	145
43		<i>Mazisi Okeita Denbelek</i>	38	146
47		Saharako haurrak gure artean	40	148
48		Bertso saioa	40	148
48		Bertsoz: koplak sortu eta abestu	40	148
49		<i>Iria</i>	40	148
50		Albistea	41	149

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalaren behaketa eta elkarrizketa.

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Unitatearen azalari behatuz hasiko gara lanean, aurreikuspen estrategiak landu eta haurrak motibatuz asmoz. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara (ikus 5.1. unitateko 6. jarduera), elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

- *Zer adierazi nahi du izenburuak?*
- *Beha iezaiozu azaleko irudiari: Irudi hori zeren adierazgarria da? Planeta. Zer elementu agertzen dira planetaren goiko aldeko irudian? Zer adierazten dute horiek guztiek? Eta beheko aldeko irudian? Zer adierazten dute? Zer erlazio dago goiko eta beheko irudiaren artean?*
- *Zure ustez, irudiak islatzen al du izenburuak adierazten duena?*
- *Zeri buruzkoa izango dela uste duzu unitate hau? Irudiari behatuz, zer alderdi jorratuko duzuela uste duzu? Justifikatu zure erantzuna.*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

Oharra: Unitate osoan zehar hainbat elkarrizketa-egoera egongo dira, eta horien artean zenbait talde txikietan burutzekoak. Beraz, komenigarria da, unitateak dirauen artean, talde finkoak izatea, eta, txandakatuz, ikasle batek bozeramaile lana egitea eta bere taldean hitz egindakoa talde handiari adieraztea. Irakasleak hainbat aukera izango du talde txikian ematen den elkarreraginari behatzeko eta baita ikasle bakoitzak bozeramaile lanetan egindako ahozko adierazpenari behatzeko ere.

Elkarrizketan aritzearekin erlazionatutako ebaluazio-irizpideen inguruko oharrak biltzeko eta ikasle bakoitzaren behaketa errazteko, lehendik ere aurkeztutako fitxa honen hainbat alderdi (egoera bakoitzean egokiena dena) erabil dezake irakasleak:

TALDE ELKARRIZKETAK
SOLASKIDEEN PARTEHARTZEARI BEHATU ETA BALIOESTEKO FITXA

BEHATUTAKO IKASLEA:

Parte hartzea prestatu du?	BAI	EZ	OHARRAK:
• Gaiari buruzko informazioa lortu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Iturri bat baino gehiagotatik lortu du informazioa.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Lortutako informazioa gogoratzeko idatziz ekarri du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Bere iritziak idatziz prestatzen ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALIOESPENA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi			

Parte hartu du?	BAI	EZ	OHARRAK:
• Besteen hitzak arretaz entzun ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Lortu duen informazioa azaldu du, hori egitea tokatzen zenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Bere iritzia azaldu du, hori egitea tokatzen zenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Aurrez beste batek esandakoari buruzko bere desadostasuna edo adostasuna azaldu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Iritziak arrazoitu edo justifikatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Moderatzaileak behartu edo eskatu dionean bakarrik hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Berak horrela nahi zuelako, bitan baino gehiagotan hartu du hitza.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Beste norbaitek esandakoari buruzko argibide gehiago eskatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALIOESPENA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi			

Elkarrizketarako arauak bete ditu?	BAI	EZ	OHARRAK:
• Besteei hitz egiten utzi die, hizketa-txanda eten edo oztopatu gabe.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina besteen hizketaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Besteek esandakoak (ideiak, iritziak...) errespetatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Besteen adierazpidea (hitz egiteko modua, keinuak...) errespetatu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALIOESPENA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi			

Egoki hitz egin du?	BAI	EZ	OHARRAK:
• Gaiarekin zerikusia duten informazioak eta iritziak bakarrik azaldu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Informazioak eta iritziak modu ulergarrian adierazi ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Besteek ondo entzuteko moduan, eta argi eta garbi ahoskatuz hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Hizkuntza zuzen erabiltzen ahalegindu da eta hitz egiterakoan egindako akats batzuk zuzendu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Esan duen zerbait ez dela ondo ulertu iruditu bazaio, saiatu da beste era batera adierazten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
• Keinua, postura eta mugimendu egokiak erabili ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALIOESPENA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi			

2. Komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Komiki honen lanketa bi helbururekin egingo dugu: lehena, unitateari sarrera eman eta gaien kokatzea, eta bestea, komikiak irekitzen dituen hizpideak aprobetxatuz, ikasleek hizkuntza erabiltzeko duten erraztasunari, aberastasunari eta zuzentasunari behatzea.

Hasteko, tartetxo bat emango diegu ikasleei komikia bakarka irakur dezaten. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian, hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora komikia sakonki irakur dezaten eta hari beha diezaioten.

Gero, taldean, komikiaren inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzio bat edo beste martxan jarriko. Aurreko unitatean esan bezala (ikus. 5.2. unitateko 2. jarduera), bat-bateko elkarrizketa edo elkarrizketa formalagoa burutu dezakezue, hemen beheko aukerako galdera eta gaiak hizpide izanik:

- *Komikiaren gaia eta ekintza nagusiak: Zein da komikiko gaia? Nola laburtuko zenuke, hitz gutxitan, zer den komikian gertatu dena?*
- *Norberaren gelaren antolamendua eta txukuntasuna: Beha iezaiozu komikiko lehenengo binetari. Bertan, Uxueren logela agertzen da. Zer deritzozu? Logelak bere izaeraren alderdi bat islatzen du, zein? Zer abantaila edo desabantaila aurkitzen dizkiozu antolamendu ezari? Zer ondorio izan dezake txukuntasun eta antolamendu ezak? Zuk zure gela txukuna eta antolatua izaten al duzu? Zerorri esker edo norbaitek txukuntzen du? ...?*
- *Janariaren garrantzia: Uxuek bokata zakarrontzira bota du. Zergatik? Zer iritzi duzu ekintza horren inguruan? Irakur ezazu irratitik entzuten den mezua eta balioets ezazu Uxueren jokabidea. Zuk inoiz bota al duzu janaririk gustuko ez duzulako izan? Eta ondo al dagoela uste duzu? ...?*
- *Bidezko merkataritza eta antzeko ekimenak: Ba al dakizu zer den bidezko merkataritza? Ezagutzen al duzu mota horretako dendaren bat? Zer motatako produktuak izaten dituzte? Zer jatorritakoak izaten dira? Zergatik ipintzen dituzte edo zer helburu dute denda mota horiek? ...?*
- *Egunkarietako berriak: Gure lagunek irakurtzen ari diren egunkarietako berri guztiak txarrak omen dira. Egia al da egunkarietako berri guztiak halakoak izaten direla? Zergatik?*
- *Abesbatza: Gure lagunak badirudi koru batean parte hartzen dutela edo, behintzat, ekitaldiren baterako abestia entseatzten ari direla. Inoiz hartu al duzu parte koruren batean? Atsegin al duzu abestia? ...?*
- *Gure lagunek ekitaldi baterako entseatzten duten lehenengo eguna dute. Zer deritzozu Uxueren partiturari? Zertan dabil Xagu? Nola izango duela uste duzu partitura Uxuek ekitaldi egunerako?*

Komiki hau oso aproposa duzue, beste edozein bezala, hitzik gabeko komunikazioa jorratzeko, har ezazue horretarako ere tartea. Pertsonaien keinuak adierazten dutenaz hitz egiteko (lotsa, harridura, ezintasuna...), mugimendua adierazten duten ikurrei behatzeko, eta abarretarako.

3. Komikia dramatizatzen

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Nahi izanez gero, komikiaren irakurketa dramatikoa egin dezakezue, pertsonaien banaketa adostu eta, talde handian, ozeneko irakurketari ekin, hizkuntzaren baliabideei garrantzia emanez. Komenigarria da ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko diotela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...) ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gainera, doinuaren garrantzia azpimarratuz.

Irakurketa dramatikoaren alternatiba gisa, aukerako jarduera hau ere, komikia dramatizatzea izan daiteke, komikiko hitzak erabili beharrean, ikasleek euren hitzak erabiliz, eta, tarteka, inprobisazio txikiak eginez. Edota horren antzeko beste jarduera bat egitea, alegia, komikia dramatizatzea hitzik esan gabe; hartara, gorputzeko eta aurpegiko keinuek hartuko lukete garrantzia, eta hitzik gabeko komunikazioa lantzeari ekingo zenioke.

Ikasleek, talde txikietan antolatuta, entseia dezakete, gero, talde handiari euren saiotxo eskaintzeko. Bukatzean, talde-elkarrizketa bultza dezakezue, gehien gustatu zaizkizuen alderdiak goraipatzeko eta hurrengorako kontuan hartzeko.

Jarduera hau une honetan nahiz kanta ikasi ostean burutu dezakezue.

4. Kanta-kantari

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 5. eta 6. or./CDa, abestiak 5, 18. pista

Tarte bat emango diegu ikasleei gaiaren abestia den “Hau mundua” irakur dezaten eta haren letrak adierazten duenaz jabe daitezen. Gero, talde txikietan, elkarrizketa bultzatuko dugu, liburuan proposatzen zaizkigun gaien inguruan hitz egiteko. Talde bakoitzak bozeramaile bat hautatuko du eta hark taldean hitz egindako ideiak bildu eta ahoz talde handiari adierazi beharko dizkio, elkarrizketa bukatzean. Adieraz iezaiozue ikasleei zein den bozeramailearen lana, alegia, ez dutela zertan entzundako diskurtso guztiak hitzez hitz errepikatu beharrik, hitz egindakoa bildu eta sintetizatzea dela euren lana, eta era laburrean eta ulergarrian adieraztea. Horretarako, hor behean dituzuen antzeko egitura duten esaldiak erabil ditzakete, zuoi otutzen zaizkizuen beste hainbatekin batera. Idatz itzazue denak arbelean eta horien erabileraren inguruko argibideak ere eman itzazue, nola eta noiz erabili jakin dezaten.

- *Gehienok ... pentsatzen dugu...*
- *Galdera honen inguruan bi iritzi sortu dira, ... eta beste hau ...*
- *Denok bat gatoz ... ideiarekin... / Gure taldekook ez gatoz bat ideia horrekin.*
- *Desadostasunak sortu dira galdera horren inguruan, batzuek ..., besteok...*
- *Galdera horri dagokionez... gure taldekook uste dugu... eta iruditzen zaigu...*
- *Liburuko galderen erantzunez gainera, beste hau ere ez dugu aipatu gabe utzi, gaiarekin bat datorrelako...*

Bukatzeke, talde handian, CDarekin batera, abestia kantatzeari eta ikasteari ekingo diogu.

5. Aurre-ezagutzak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or./Irakurgaiak 5, 64. eta 65. or.

Talde handian, aurre-ezagutzetako bigarren ariketa irakurri eta bertan adierazitakoari ekingo diogu. Gogoan izan, jarduera honetan irakurgaietako prentsako lehenengo testuari gainbegiratzuz (titularrak eta irudietan adierazitakoa irakurri eta horiei behatuz) erantzun behar dutela ikasleek galderei eta inolaz ere ez testu osoa irakurriz, hori aurrerago egingo baitugu.

Egunkaria egunero erosten duten lagun gutxik (inork ez esatearren) irakurtzen du egunkaria goitik behera; ohitura da berri ezberdinen titularrak eta azpitularrak irakurtzea, berriaren gaia eta eskain dezakeen informazioaz jabetzeko, ondoren, interesaren arabera, berria osorik irakurtzeko edo ez. Adieraz iezaiezue ikasleei, ariketa honetan egin duten gauza bera egin beharko dutela egunero prentsa aztertzen dutenean, gaiarekin zerikusia duten berriak hautatzeko. Behin hautatutakoan, horiek irakurri eta proiektuan adierazten zaienari ekiteko.

Ahozko elkarrizketari dagokionez, pista handiak emango dizkizue, ikasleek gai honekiko duten kontzientziaz eta sentsibilitateaz jabetzeko.

Elkarrizketaren ostean, talde handian, irakurgaietako berria irakurtzeari ekingo diogu.

6. Proiektuaren aurkezpena

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Unitate honetan, mundu zabaleko herrien eta kulturen hizkuntzen, artelanen, musiken, dantzen, kondairen eta beste hainbat alderdiren berri emango da, horiek guztiak landu ahala, herri eta kultura ezberdinetako hainbat material jaso eta zuok osatuko duzuen prentsa-txostenarekin batera erakusketa egitea proposatzen dizuegu. Erakusketa hori munduko musikarekin girotutako herri ezberdinen erakus-leiho izan daiteke. Unitatean zehar, erakusketa hornitzeko hainbat proposamen aurkituko dituzue bonbilla txikietan. Horiek guztiak eginez edo horien artean bat edo beste aukeratuz edota zuoi otutzen zaizkizuen ideia berriekin, erakusketa polita eta ikusgarria antola dezakezue. Ekin, bada, ideiak sortzeari, unitatean aurrera joan ahala!

7. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.

Gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, ingurumena arloa den lehenengo zutabea irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, eman iezaiezue ikasleei tarte bat, bakarka nahiz binaka, gainerako informazioari gainbegirada emateko.

Gogora ezazue ikasnorabidea ikasleen ikasketa prozesuaren auto-erregulaziorako tresna dela eta, unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, atal bakoitzean arlo ezberdinetan lantzen ari zareten edukiaz jabetzeko.

Ez ahaztu komenigarria dela ikasnorabidea D-3-an koloretan fotokopiatzea, plastifikatzea eta, gelan, begi bistan izatea.

8. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian

Behin ikasleek egingo duten proiektua zein den argi dutenean eta baita proiektu hori burutzeko ikasi behar dutena ere, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean, hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu (munduko herrialde ezberdinen argazkiak nahiz herrialde ezberdinetan ateratako argazkiak, munduko musikak, herrialde ezberdinei buruzko liburuak, aldizkariak, DVDak...) izan dezakeen etxean, gelara ekartzeko. Materiala ekarri ahala, txokoan jarriko dugu. Komenigarria da ikasle bakoitzak etxetik ekarritako materiala talde handiari aurkeztea, gela guztiak txokoan dagoenaren berri izan dezan eta erabil dezan behar duenean edo egokia iruditzen zaion mementoan. Gogoan izan gelan munduko horma-irudi mapak eta atlasak izatea beharrezkoa izango dela, unitatea lantzen ari garen neurrian aurkeztutako hainbat herri bertan kokatzeko.

Litekeena da txoko zuria ikasleek edota euren gurasoek bisitatutako hainbat herrialdetatik ekarritako elementuekin gainezka izatea. Gogoraz iezaiezue ikasleei txoko zurira ekartzen diren material guztiek izena jarrita eduki behar duetla eta ongi baino hobeto zaindu behar ditugula, etorri bezala buelta daitezten etxera.

9. Prentsa txokoa

Lan egiteko era: Talde handian

Unitate honetan, prentsa izango dugu informazio-iturri nagusietako bat, prentsako testuak aztergai eta prentsa idatziko albisteak ulermenerako eta ekoizpenerako testu-mota nagusi. “Prentsa txokoa”k, beraz, garrantzi berezia hartuko du oraingo honetan.

Ohiko trataeraz gainera, hainbat dinamika edo jarduera berri gara ditzakegu txoko honen inguruan.

- Egunkari eta aldizkari gehiago eta berriak ekarri.
- Euskarazkoez gainera, beste hizkuntzetan idatzitakoei ere tartea egin.
- Egunero prentsa behatzeari eta irakurtzeari tartea egin ikasorduen barnean.
- Irakasleak prentsan bildutako albiste eta informazioen berri eman ikasleei sarri-sarri.
- Albisteen jendaurreko irakurketak areagotu.

Aurrerago (11. eta 18. jardueretan, esaterako) “Prentsa txokoa”ren inguruan garatutako beste hainbat proposamen ere aurkituko dituzue.

10. Ikasleen koadernoak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Koadernoak, aurtan eta datozen urteetan ere, ikaslearen ezinbesteko lan-tresna izango da, sintesirako (definizioak, azalpenak, eskemak, mapak...) nahiz hainbat prozeduratan trebatzeko (grafikoak...) erabiliko dutena. Horregatik, haren balio eta garrantziaz jabeaz behar ditugu, haren erabilpen zuzen eta egokian hezi eta ohitura onak finkatu ikasleen artean. Beraz, hirugarren unitatea lantzen hasi garen honetan, memento egokia dugu, aurreneko atalean murgildu aurretik, lehenengo unitatean koadernoaren erabilpenaren inguruan adostutako hainbat alderdi (txukuntasuna, antolamendua, zuzentasuna..), taldean, aipatzeko eta horiei erreparatzeko.

Ondoren, ikasle bakoitzak bere koadernoaz aztertuko du eta bere lanaren autokritika eta auto-ebaluazioa egingo du. Horrez gainera, konpromezu bat ere har dezake, adibidez, gaizkien duen alderdi horri arreta berezia jarri eta hura zuzentzen eta hobetzen saiatu unitate honetan.

Ikasleen artean izango dira dena txukun eta zuzen egiten dutenak, baita gauza asko hobetzeko dituztenak ere, azken horiei dena batera zuzentzeko eskatzea gehiegikeria izan daitekeenez, eska iezaiezue alderdietako bati jartzea arreta eta indarra, unitate honetan eta hurrengo unitatean, horri gehi besteren bati. Balioets iezaiezue emandako aurrerapausoak eta motibatu beste alderdiren bati tinko euts diezaioten.

Bukatzeko, ikasle bakoitzak bere koadernoaz martxan jartzeari ekingo dio, hau da, unitate honi dagokion azala prestatuko du, izenburua idatziz eta irudiren batekin apainduz.

Bestetik, gogoraraz iezaiezue, koadernoan ikasteko bildutako informazioa ahoz nahiz idatziz adierazten jakin behar dutela; beraz, eman iezaiezue tartek lan horri ekiteko ere, alegia, ahoz zein idatziz informazioa ematen trebatzeko.

11. Mundua irudikatzen eta bertan kokatzen!

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11.or.

Jarduera honen helburu nagusia mapei behatu eta horien adierazpenaren eta erabileraren gainean hausnartzea da.

Unitate honetan, munduko mapak erabiliko ditugu mundua aztertzeko, eta mapak aztertuz, horien erabileran trebatu ere egingo gara; beraz, eskura itzazue munduko horma-irudi mapak eta baita atlasak ere.

Talde handian, irakur eta osa ezazue bi orrialde hauetan proposatutako jarduera. Jarduera honen helburua da ikaslea jabetzea, nahiz eta batzuk antzekoak izan, munduko mapa askotarikoak daudela, era inplizituan informazio ezberdina aditzera ematen dutenak. Orrialde horietan agertzen diren mapa horietako bakoitza egin zen garaiko tokien eta gertaeren garrantziaren isla da. Beha iezaiezue, beraz, mapa horiei, xehetasunei erreparatu. Irakasle, lan hau burutzeko zure laguntza eta argibideak beharko dituzte ikasleek.

Bestetik, jarduera hau egin aurreko egunean, esan iezaiezue ikasleei laranja bana ekartzeko. Hura zurituz eta haren azala erabiliz, mundua, esferikoa izanik, mapa lau baten antzera irudikatzeak duen zailtasunaz (forma eta azalerari dagokionez) jabetzen lagunduko baitie. Laranja dagokionez, garbitasunaren izenean, lana bukatu eta liburuak gorde ostean, jan dezakezue.

Esandakoaz gainera, bonbillan adierazi bezala, marraz ezazue, horma-irudi handi batean, munduko mapa mutu bat, aprobeitza ezazue aukera kontinente eta ozeano nagusien erreparoa egiteko eta, unitatean landu ahala herri ezberdinei buruz bildutako prentsako albisteak, herriaren edo herrialdearen izenarekin batera, bertan kokatzeko.

12. Paraleloak eta meridioak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or./9. lan-koadernoaz, 48. eta 49. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei paralelo eta meridioei buruzko informazioa irakur eta uler dezaten. Gero, irakasleak informazio hori berau ahoz adieraziko die

ikasleei, azaldu ahala egoki diren irudiak arbelean eginez. Azalpena bukatu ostean, ikasleei galderak egiteko tartea emango diegu, ulertu ez denari, edo errepikatzea nahiz beste era batera azaltzea nahi denari tokia egiteko. Galdera horien erantzunak irakasleak eman ditzake edota ulertu duen ikasleren batek, ahal duzuen guztietan aprobeitza itzazue berdinen arteko azalpenak egiteko eta entzuteko aukerak. Azalpena ematen duen ikasleak ahozko adierazpenean trebatzeko eta edukia asimilatzeke aukera izango du, eta entzuten ari direnek, maila apalago batean emandako azalpen baten bidez, ulermena sendotu edo sortu egingo baitute. Edozelan ere, ikaslearen azalpena ez bada nahikoa, irakasleak indartu beharko du ulermen hori, estrategia ezberdinak martxan jarritz.

Azalpenen tartea bukatzean, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote, gero, lau laguneko taldeetan, ikasitakoa txandaka adieraziz. Taldetxoetako lana bukatzean, talde bakoitzeko kideek irakasleari adieraziko diote jarduna zer moduzkoa izan den, ikasleren batek zailtasunak izan dituen, zer motatako zailtasunak... Hartara, irakasleak, berak egindako behaketaz gainera, ikasle bakoitzari buruzko hainbat datu jaso ditzake, zein ikasleri zer alderdi sakontzea komeni zaion jabetuz.

Ikasleek paper zurian egindako krokisa koadernoko orri batean itsatsi edo berreraiki dezakete. Gogoan izan, datuz gainera, erreferentzia orrialdea ere idatzi behar dutela eta izenburuarekin batera irudia dagokion koloreko koadroan sartu, ikasteko baita. Ikasleek paralelo eta meridianoei buruzko informazioa krokis bidez adierazten eta ahoz nahiz idatziz azaltzen jakin behar dute.

13. Koordenatu geografikoak: latitudea eta longitudea

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 13. eta 14. or./9. lan-koadernoan, 50. eta 51. or.

Jarduera honen helburua koordenatu geografikoak zer diren ulertu eta euren erabileran trebatzea da. Beraz, bakarka, lehenik, eta, ondoren, talde handian eta irakaslearen azalpenekin, koordenatuei buruzko informazioa irakurriko dugu eta 14. orrialdeko jarduera egiteari ekingo diogu, talde handian. Ondoren, ikasleek, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote.

Jarduera hau osatzeko, atlasak eta munduko mapa eskura izan behar dituzue. Horiez gainera, komenigarria da, baita ere, munduko bola izatea gelan.

Lan-koadernoko jarduera zuzentzeko, ikasleak binaka jarriko dira (bikoteak irakasleak egin ditzala, antzeko erritmo- eta ulermen-maila duten ikasleekin) eta euren lana berrikusi eta alderatuz zuzenduko dute. Erantzun ezberdinak izanez gero, erantzun zuzena zein den jakiteko, mapak edo atlasak kontsulta ditzatela, eta, derrigorrezkoa balitz, hirugarren ikasleren bati galde diezaiotela.

14. Uharte misteriotsua

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka

Materiala: 9. lan-koadernoan, 52. orrialdea/CD-ROMa

Koordenatu geografikoen erabileran trebatzeko, jolasa egitea proposatzen dizuegu. Jolaserako, orrialdearen eredia dugu lan-koadernoan; beraz, irakasleak hainbat fotokopia izango ditu beti gelan, txoko zurian, adibidez, ikasleek, aukera dutenean, euren jarduerak bukatu ostean, adibidez, nahi beste aldiz jolas daitezten, koordenatu geografikoen erabileran trebatzeko asmoz.

Talde handian, irakasleak jolasa zertan datzan azalduko die ikasleei. Gaztelaniazko “Hundir la flota” jolasaren bertsio bat planteatu dugu. Ikasleek arretaz entzun beharko dute eta azalpena bukatzean, ulertu ez denari buruzko galderak egin beharko dituzte. Prozedura argitutakoan, binaka, ikasleek jolasteari ekingo diote.

Nola jolastu:

- Lan-koadernoan duzuen orrialdea hainbat aldiz fotokopiatu ikasle bakoitzarentzat. Nahi izanez gero, irudia txikitu eta folio bakoitzean bi irudi jarri.
- Jolasten duten bakoitzean, ikasle bakoitzak bi irudi beharko ditu.
- Banaka nahiz binaka jolastuz, norbanakoa edo binakakoa beste norbanako edo binakakoaren aurka ibiliko da.
- Irudi batean, jokalaria bakoitzak bere piezak (kopurua adostu dezakezue, baina hau da gure proposamena: 2 txabola, 4 txalupa, 8 ur barrika eta 8 janari otar) irudian zehar nahi eta ahal duen moduan kokatuz marraztuko ditu, koordinatu jakin batzuk erabiliz. Kontuan hartu behar da pieza bakoitzak zenbat koordinatu puntu ukitu behar dituen.
- Hastea tokatu zaion jokalaria koordinatu bat esango dio aurkariari, bere irudiko piezak non dauden asmatzeko asmoz. Asmatuz gero, berriro bere txanda izango da. Huts eginez gero, beste jokalaria txanda izango da.
- Marraztu gabe dagoen irudia aurkariaren posizioak apuntatzeko erabiliko da. Alegia, asmatuz gero, ikur bat jarri (biribiltxo bat, adibidez) eta huts eginez gero, beste bat (X bat, adibidez).
- Horrela jarraituko dute batek, garaileak, bestearen posizio guztiak asmatzen dituen bitartean.

Koordinatu geografikoen erabilpenean trebatzeko, hainbat jolas aurkituko dituzue CD-ROMean.

15. Geografi atlasa eta hiztegi entziklopedikoa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.

Hainbat informazio-iturriren —atlasa eta hiztegi entziklopedikoa, hain zuzen ere— erabilera trebatzeko jarduera dugu hau.

Talde handian, liburuko jarduera osatzeari ekingo diogu. Bukatzean, informazio-bilaketan trebatuko gara, lehenik eta behin, atlasarekin eta, ondoren, hiztegi entziklopediko edota digitalarekin.

Atlasaren erabilpenari dagokionez, irakasleak hor behean dagoen informazioa luzatu ostean, atlasean bilaketa-lanetan ematen diren urratsak banan-banan azal ditzake eta, bitartean, ikasleak urrats horiek burutuz joan, binaka partekatzen duten atlasean.

Hiztegi digitalari dagokionez, modurik errazena, baliabideak baldin badaude, behintzat, gelako ordenagailua proiektore digitalarekin konektatzea eta irudia pantailan proiektatzea izan daiteke. Modu horretan, ikasleek bilaketaren urratsen azalpenak entzun eta zuzenean ikusteko aukera izango dute. Banaka, ikasleek, irakasleak esandako herriaren izena bila dezakete hiztegi digitalean, euren lagunek bilatutakoa pantailan bertan ikusten duten bitartean.

Unitatea landu ahala, hainbat informazio bilatu beharko duzue hiztegi digitalean, halakoetan, txandakatuz, bi ikasle egin dezakete bilaketa lana.

Helbide honetan, hainbat motatako hiztegiak aurkituko dituzue:
www.hiztegi.net.

Atlasa eta honen erabilpena

- Atlasak mapak biltzen dituzten liburua da eta edozein datu geografiko bilatzeko edo kontsultatzeko iturri aproposa dugu, xehetasun ugari biltzen baititu.
- Mota guztietako mapak ager daitezke (fisikoak, politikoak, historikoak...), eta mundu osoari buruzko xehetasun ugari biltzen da, adibidez, herrialdeetako edo eskualdeetako hiriak, mendiak, itsasoak, aintzirak, ibaiak...
- Atlasaren erabilera: Adibidetzat (zeuek nahi duzuen) hartuko dugu zer urrats eman behar ditugun azaltzeko:
 - Lehenik, atlaseko toponimoen aurkibidera joko dugu. Ba al dakigu zer den toponimoa? Hiztegian begira dezakegu, ondorioztatu... Toponimoen aurkibidea Atlasaren atzeko aldean egoten da, normalean. Aurkibide horri, lekuen (hiri, mendi, ibai...) izenak agertzen dituzenez, toponimoen izendegia deitzen zaio. Geografian askotan gertatzen den bezala, grezieratik datorren hitza da topos-ono-ma, eta lekuen izenak esan nahi du.
 - Atlasetan agertzen diren elementu guztiak alfabetikoki ordenatuta agertzen zaizkigu aurkibide horretan.
 - Bilatzen ari garen izena topatu behar dugu.
 - Izenaren ondoan, bilatzen ari garen gunea zer orrialdetako mapan dagoen agertuko zaigu (adibidez, xxx adibidearen datuak) eta mapa hori ikusi dugun moduan, koordenatuen arabera zatikaturik dagoenez, non dagoen errazago topatzeko, zati bakoitzari letra bat ematen zaio ezkerretik eskuinera (A, B, C...) eta zenbaki bat goitik behera (1, 2, 3...).
 - Erreferentzia horien arabera, gu bilatzen ari garen gunea zein laukitan dagoen zehazturik agertuko zaigu (*Nairobi, G-6*).
 - Orain, atlasean adierazitako orrialdeko mapara jo behar dugu eta, aipaturiko erreferentziak (letra/zenbakiak) kontuan izanik, bilatzen ari garena zehatz-mehatz non kokatuta dagoen jakingo dugu.
 - Bilaketa amaitutzat emateko, orain badakigu gune hori zein hemisferio, kontinente edo herrialdetan dagoen, eta bere koordenatuak ere erraz jakin ditzakegu.

16. Munduko populazioa: populazioaren bilakaera

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.

Ikasleek, bakarka (zailtasunak dituzten ikasleek binaka egin dezakete), liburuko testua irakurri eta euren koadernoan populazioaren definizioa idatzi (ikasteko koadro gisa) eta ikasteaz gainera, munduko biztanleriaren bilakaeraren puntuzko grafikoa (grafikoen osaketan trebatu) ere osatuko dute. Bukatzean, talde handian eta arbelean, bi jarduera hauek berrikusteari ekingo diogu.

17. Txina: gehiegizko biztanleria

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or./Irakurgaiak 5, 66. or.

Hirugarren mailan, Txina munduko herrialderik jendeztatuenetakoa dela ikusi zuten ikasleek eta baita gehiegizko populazioari aurre egiteko Txinan hartzen dituzten neurriak zein diren ere. Ipin itzazue martxan, bada, horri buruzko aurre-ezagutzak. Gero, tarte bat eman iezaiezue, irakurgaietako berria irakurtzeko eta, horri buruz hausnartu ostean, euren iritzia osatzeko. Ondoren, talde-elkarrizketa eragin ezazue gaiaren inguruan. Gogoan izan aukera duzuela elkarrizketarekin zerikusia duten hainbat irizpideri behatzeko, ikasle bati edo besteari.

18. Prentsako testuak

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or./9. lan-koadernoa, 53. orrialdetik 57.era

Prentsan mota askotako albisteak aurki daitezke, bakoitza helburu edo komunikazio-asmo jakin batekin eta horren araberrako edukiarekin. Testu mota horiek aztertzeko eta bereizten ikasteko asmoz garatuko dute ikasleek sekuentzia hau.

Taldetxoetan antolatuta, ikasleek liburuko 16. orrialdean proposatzen diren ariketak osatzeari ekingo diete, jarduera nola burutu taldekideak eurek balioetsi eta erabaki beharko dute. Bukatzean, taldekide batek talde handiari egindako lana eta ateratako ondorioak adierazi beharko dizkio ahoz. Horretarako, taldeko batek rol hori hartu beharko du, alegia, hitz egindakoen oharra edo erantzunak idaztearena.

Lan-koadernoko jardueri dagokienez, ikasleek bakarka (zailtasunak dituzten ikasleek binaka) osatuko dituzte eta taldean berrikusiko ditugu. Jarduera horiek osatzeko, irakurgaietan dituzten prentsako testuak irakurri beharko dituzue, aukeran, taldean.

Lehenengo jardueren bitartez (53-55. orrialdeak), prentsako testuetan komunikazio asmoa eta testu mota bereizten trebatuko dira ikasleak. Esan gabe doa, eskaintzen diren ariketez gainera, eguneroko eredu errealekin azterketa bera egin daitekeela gelan. 56-57. orrialdeetan, berriz, albisteen sintesia izango dugu helburu: egitura kontuan izanik, albisteen gaia eta elementu nagusiak bereizi beharko dituzte ikasleek eta fitxa batean laburbildu.

Lan-koadernoko sekuentzia egin ondoren, martxan jarriko genuke albiste kontaketa. Egunero ikasle bat ardura daiteke bilatu, hautatu eta irakurri duen albiste gainerakoei kontatzeaz.

Jendaurreko ahozko azalpena edo kontaketa egiteko, honako egitura honi jarraitzeko eska geniezaieke ikasleei:

1. Sarrera edo aurkezpena: nondik hartutako albiste den, noizkoa, zein duen gaia, zergatik hautatu duen...
2. Garapena: kontaketa, sintesi fitxan oinarrituta.
3. Elkarrizketa: entzuleei galderak egiteko aukera eskainiz eta erantzunak emanez.

Entzuketa aktiboa ziurtatzeko ere zereginen bat eska geniezaieke entzuleei: adibidez, entzun ahala fitxatxo bat betetzea, albistearen gaia eta elementu nagusiak jasoz. Horrela, asko ugarituko dira albistearen elementu nagusiak identifikatzeko helburua lantzeko aukerak. Horrela egitekotan, fitxa-eredu bat eman (lan-koadernokoan

oinarritakoa izan daiteke). Informazio edo datu horiek bil daitezke fitxa horretan: BERRIEMAILEA (albistea kontatu duena, alegia), DATA (kontaketa), ZER gertatu den eta NOR izan den protagonista, NORK egin duen edo NORI gertatu zaion. Ikasle bakoitzak bete beharreko fitxa izan ordez, txandaka, guztien artean bete dezaketen horma-irudi bat ere izan daiteke.

19. Munduko populazioaren banaketa

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 17. eta 18. or.

Ikasleek biztanle-dentsitatearen definizioa ikasteaz gainera, hura nola kalkulatu den ere ulertu behar dute. Sarritan, buruz ikasten dute zein den egin beharreko eragiketa eta, funtsean, ulertu gabe aplikatu besterik ez dute egiten, eta luze gabe ahaztu egiten zaie. 17. orrialdeko jarduera hausnarketa hori egiten laguntzeko da, biztanle-dentsitatearen kalkuluen ulermena sendotzeko; beraz, utz iezaiezue ikasleei hausnarketak eta kalkuluak egiten, taldean elkarriketa sortu aurretik.

Bigarren ariketa, dentsitatea kalkulatzeari dagokionez, behintzat, bakarka egin dezakete. Herrialde bakoitza zein kontinentetan dagoen atlasean nahiz mapetan bilatzea, berriz, binaka egin dezakete. Bukatzean, talde handian berriki dezakezue ariketa.

Azken bi ariketak bakarka nahiz binaka egin ditzakete eta talde handian berrikusi.

Datua: Nafarroak, Bizkaia baino bost aldiz handiagoa izanik, populazioaren erdia du. Nafarroako dentsitatea 56 biz./ km² da eta Bizkaikoa 505 biz./ km².

20. Bizi-itxaropena

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. eta 20. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei testua bakarka irakurri, bizi-itxaropenaren definizioa bilatu eta koadernoan idatz dezaten ikasteko. Ondoren, talde handian irakurriko dugu, hainbat hitz eta kontzeptu argitzeko asmoz. Gero, ikasleak hiruzpalau laguneko taldeetan bilduko dira, liburuak proposaturiko gaien inguruko gogoeta eta datu bilketa egiteko. Bukatzean, talde handian, egindakoa azalduko dute. Egoera horiek elkarriketari dagozkion hainbat irizpideri behatzeko balia ditzakezu.

Testuan informazio zehatza bilatu behar dute ikasleek, alegia, pobrezia eragiten duten arrazoiak eta ondorioak. Testuko informazioan oinarrituta, hilkortasunari eta pobrezia aurre egiteko leudekeen soluzioak ondorioztatu eta proposatzea ere eskatzen zaie. Horrez gainera, gai jakin baten (botika-industriako multinazionalen jokabidea) gaineko iritzia landu behar dute eta adierazi.

21. Barra-grafikoak

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.

Barra-grafikoak zer diren taldean gogora ekarri ostean, ikasle bakoitzak jarduerak proposatzen dituen grafikoak osatuko ditu koadernoan. Bukatzean, talde handian, grafikoak arbelean berreraiki eta interpretatzeari ekingo diogu.

Jarduera honen bidez, barra-grafikoen osaketan eta interpretazioan trebatuko dira ikasleak.

22. Adin piramideak eta banderak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 21.or./Irakurgaiak 5, 70. orrialdetik 72.era

Ikasleek tarte bat izango dute, bakarka, adin-piramideak zer diren azaltzen duen testua irakurtzeko, eta ahozko jarduerak proposatzen dituen galderen erantzunak bilatu nahian, hiru kontinenteren adin-piramideei (grafikoak) behatzeko eta interpretatzeko. Bukatzean, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu, ahozko jarduera berrikusteko.

Prozedura bera jarraituko dugu, irakurgaietan ditugun banderen (datuak adierazteko beste modu bat “grafiko bereziak”) behaketa eta interpretazioa egiteko asmoz.

Bukatzeko, talde handian, ba al zenekien...?-eko esaldiak irakurri eta elkarrizketa bultzatuko dugu, ideia hauetariko bakoitzaren inguruan hitz egiteko.

23. Ingelesa: Basic Needs

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. eta 23. or.

Unitatearen atal berri bati sarrera emango diogu ingelesezko jardueraren bidez: munduko kultur eta hizkuntza aniztasunari buruzkoa. Kultura gizakiok gure oinarrizko beharrei erantzuteko modua bezala definitzen dugu. Jarduera honetan, gizakion oinarrizko beharrak zein diren elkarrekin zehaztu ondoren, inguru desberdinetan erantzun horiek nolakoak diren aztertuko dugu. Amazoniako oihana eredu bezala landuko dugu talde osoarekin eta, ondoren, talde txikietan banaturik, bakoitzak inguru desberdin baten inguruko azterketatxo egingo du, argazkiak baliaturik. Erantzun guztiak batu ondoren, gizakiok inguruari egokitzeko modu bat baino gehiago ditugula ondorioztatuko dugu, eta horiek osatzen dituztela munduko kulturak.

Procedure:

- Ask the pupils what they have been working on.
- Explain that you are going to continue working on these ideas in English. Today you are going to think about the ‘basic needs / necessities’ that we all have to live.
- Ask for or give an example e.g. ‘food’ We all need food to live.
- Get them to discuss with a partner/s and write down some ideas in their note book.
 - Food
 - Water
 - Somewhere to live / Shelter (house)
 - Clothes
 - Work
 - Play
- Ask for their ideas. Discuss whether they are really basic or not.
- Explain that we all have basic needs but the way we respond depends on our environment. i.e. We all need to eat but we do not eat the same things in the Basque Country and in India. In India they eat rice because rice grows there. In the Basque Country we eat cows because cows live in the green fields.

- Ask them to turn to page 22 and read the ‘Same needs, different responses’ text together.
We all have the same basic needs but we respond to these needs in different ways. Different communities around the world eat different food, live in different houses, etc.
Why do we respond differently to the same needs? We respond according to where we live; the landscape, our environment.
- Explain that you are going to look at some different landscapes and think how people living there would respond to their basic needs. *(We have included some extra pictures below of the different landscapes in case you want to copy more visual examples: Cold snowy landscape e.g. Arctic / Coastal / Woodland / Savannah / Desert / Mountains)*

We will use THE AMAZON RAINFOREST as an example. (Liburuko 22. orrialdeko argazkia)

- Model the language they need to reply.
 - *What can you see? Trees, forest, jungles, brown (muddy) water, rivers*
 - *What do you think the weather is like? Rainy, hot, humid*
 - *Where do you think people here would live? In what kind of houses? Why? Near the rivers (jungle is dense, dangerous. Need water and fish). In houses made of wood, maybe raised up. Houses made of mud and leaves.*
 - *What kind of work do they do? Why? Fishing, hunting, gathering food from forest, keeping few animals. They make everything for everyday life: fishing and hunting equipment, baskets and pots, clothes, mats, hammocks etc.*
 - *What do you think they eat? Why? Things they find and hunt: fish, meat, fruits, roots, nuts etc.*
 - *How do you think they travel? By boat, on foot*
 - *What sort of clothes do they wear? Why? Not many because it is hot*
 - *What kind of games do they play? Why? Fighting games e.g. tug of war, arrow shooting competition. Children’s games. Dancing. Music.*
- Ask them to look at the following instruction and ask them what they have to do. (Liburuko 23. orrialdeko argazkiak)
 - *Work with a partner. Choose two or three pictures and try to answer some of the questions above for each picture.*
- Go around helping with the conversations.
- Ask some students to report back.
- Read the final box together to get across the idea that world cultures are shaped by the environments we live in.

Now you have seen how communities respond differently to their basic needs depending on the environment they live in. Those different ways of eating, living, playing, etc. make up the different world cultures.

24. Giza espezie bakarria eta hainbat kultura

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. eta 25. or.

Orrialde hauetako helburu nagusia da ikasleak jabetzea giza espezie bakarria dagoela munduan eta gizakia espezie horretako kidea dela, edozein kulturatakoa edo herrialdetakoa izanik ere. Beraz, orain arte egin izan diren arraza-sailkapenak egitea saihestu nahi du Txanelak, arrazak ez baitira existitzen, gure itxura fisikoan eta bizimoduan ditugun aldeak, baita hizkuntzan ditugunak ere, urte askotako egokitzapen-prozesu baten ondorio besterik ez baitira. Beraz, orrialde hauek eta hurrena datozenak, kulturantzaren eta kultura arteko elkarreraginen kontzientziaz eta balioaz jabetzen lagunduko diete ikasleei. Esandakoa argitzeko eta ulertzeko, orrialde honetako informazioa talde handian eta irakaslearen azalpenen laguntzaz irakurtzeari ekingo diogu, horren inguruan dakigunaz (dokumentaletan ikusitakoa, irakurritakoa...) hitz egiteko elkarrizketa bultzatuz.

Euskaraz horrenbeste ez baldin badaude ere, badira kultura ezberdinei buruzko hainbat dokumental; aukera baduzue, aprobeitza ezazue horietariko bat edo beste ikusteko.

Herri edo kultura jakin bati buruzko dokumental baten aurrean ikusi eta entzundakoaren berri eman dezaten, honen antzeko gidoi edo galdetegi bat eskaini genieziaieke ikasleei.

Sarrera edo aurkezpena:

- Zein da dokumentalaren **gai nagusia**? Zein herri edo kulturari buruzkoa da?
- Nongoa da? Zein dira bere ezaugarri nagusiak?
- Non ikusi duzu dokumental hori? Zein euskarritan (telebista, bideoa...)? Nola eskura daiteke?

Garapena:

- Gai nagusiaren zein alderdi jorratzen dira dokumentalean? Zein dira **azpigaiak**?
- Zein dira eskaintzen dituen informazio nagusiak?
- Zer iruditu zaizu bitxiak, interesgarriak...? Zergatik?

Elkarrizketa (entzuleen informazio eskariei erantzun, informazioa elkarrekin trukatu...)

25. Artelanak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. orrialdeetik 27.era

Paul Kleeren lanetan oinarrituta eta kolore hotzekin eta beroekin jokatuz, **bi paisaia desberdin iradokiko ditugu, forma laukietan oinarrituta eta elementuak norabide desberdinetan konposatuz**. Talde handian hasiko dugu behaketa eta hausnarketa lana; ondoren, bakarka, haur bakoitzak bere lanak egingo ditu. Kolore beroekin hegoaldeko paisaia irudikatuko genuke eta hotzak erabiliz iparraldekoa. Nolanahi ere, ez eman ikasleei ideia honren berri, hausnarketa bidera ezazue,

argudiatuz, ea zertara iristen diren. Kolore beroek eguna, alaitasuna, energia adierazten digute eta, aldiz, hotzek gaua, tristura, hotza... adieraz dezakete baita ere.

Hirugarren lan bat kolore beroak eta hotzak konbinatuz ere egin daiteke.

Gardentasunak txertatzeko, setazko, txarolezko eta zelofan paperekin kollage teknika erabiliz egingo dugu lan. Paper gardenak opakoen gainetik jarriz, hondoa batzuetan bete gabe utziz... osatuko dugu konposizioa. Papera itsatsi (stika edo hodietan datorren kola egokia da lan horretarako) aurretik, proba desberdinak egin ditzatela, moztutako zatiak egokituz, forma eta koloreen arteko oreka bilatuz. Itsatsi ondoren, errotulagailuak erabil daitezke, lerroen eta mantxa batzuen bidez adierazkortasuna indartzeko. Hala ere, paisaia iradokitzea nahi dugu eta ez xehetasunetara jotzea.

Bukaeran, egindako lanei behatu eta alderatu guztien artean.



Kolore beroekin bakarrik



Mixtoa



Kolore hotzekin bakarrik

Paul Keerekin jarraituz, bere “Bat-batean gaueko grisetik sortu zen...” obra aitzakia hartuta eta **olerkiak, mezuak, agurrak kolorearekin uztartuz**, beste lan bat burutu dezakete.

DIN-A 4 kartulina batekin bi aldeak landuz, postal moduko bat egin dezakegu nahi badugu, bestela, koadro bat egin daiteke. Postala egin nahi izanez gero, kanpoko aldea margoak, setazko paperak, zelofanak, etab. konbinatuz osa dezakegu. Barruko aldean, berriz, Kleeren lanean oinarritutako ideia garatuko dugu. Horretarako, lau aldeetan marjina utzi, lehenik, eta, ondoren, arkatzez, eta idatzi nahi denaren arabera, lerro paraleloak egingo ditugu. Letra maiuskula erabiliz, testua idatziko dugu lerroetan

zehar, eta, letren formak baliatuz, kolore (plastidekor moduko margoak egokiak dira lan honetarako) askotarikoz beteko ditugu espazioak. Bukatzeko, errotulagailu beltza edo iluna erabiliz, letrak nabarmenduko genituzke.



Barruko aldea



Kanpoko aldea

Maskarak

Maskarak, egurrezkoak, buztinezkoak eta hainbat materialez egindakoak izan daitezke. Liburuan dagoen haurrek egindako maskara, adibidez, kartoiaren gainean tenperaz margotuz egindakoa da. Egurraren antzeko materialak zenbaitetan ez dira lortzen errazak izaten, baina guztiok eskura ditugunak plastikozko ontziak dira.

Har dezagun ontzia eta beha diezaiozun ongi alde guztietatik. Zer iradokitzen digu bere formak? Forma horiek baliatuz, nola egin dezakegu maskara bat, totem txiki bat?...



Aurretik



Atzetik



Lehunkari ontzia



Kartulinak eta paperak mozterakoan, kontuan izan ontziaren formak ondo egokitzea komeni dela. Apaintzeko, estalkiak (begiak egiteko, adibidez) eta beste ontzi txikiagoak (jogurt-ontziak, adibidez), hariak, oihal puskak ere erabil daitezke.

Zuria eta beltza

Amable Ariasen lanean giza irudiak ia komiki moduan adierazita ditugu ikusgai. Marrazki batean lerro beltzak izango liratekeen funtzioa kartulina beltzeko formen artean utzitako espazio zuriek betetzen dute. Afrikar tapizak gogoan, giza irudiak egin ditzakegu eta, nahi izanez gero, koloreetako kartulinekin eta oihalekin ehundura desberdinak landuz osa dezakegu lana.

Zuriarekin eta beltzarekin egin daitekeen beste lan bat positiboarekin eta negatiboarekin jolastea da (ikus liburuko ikasleen irudia eta hemen behekoak). Kartulina beltzari kendutako beste espazio bat okupatuz (jarraian hainbatetan), espazio-eta forma-jokoak egin ditzakegu.



Estatua

Giza irudia hiru dimentsiotan lantzeko, artelanen behaketa egin ostean, ikasle bakoitzak lerroen bidez bere lanaren bozetoa egingo du.

Beharazi Giacomettiren kasuan giza gorputzaren proportzioak mantentzen direla; Mumuye estatuen kasuan, berriz, ez direla proportziak mantendu (beso eta enbor luzeak, hanka motzak). Bi kasuetan, figura idealizatuak dira, ez dira naturalistak. Gizakiaren esentzia modu sinbolikoan adierazten da.

Bozetoa egin ondoren (batez ere Giacomettiren irudia bezain luzexka eta fina egin nahi bada), burdinariz egin daiteke barruko egitura. Burdinari zatiak elkarri lotzeko, karrozeriek (margolariak ere horixe bera erabiltzen dute) erabiltzen duten zinta itsaskorra da egokiena. Egitura finkatu ondoren, buztina, gogortzen den oreka edo plastilina erabiliz osatu irudia.

Lan hau burutzeko, beste hainbat material ere erabil daitezke: egur zatiak, aurkitutako elementu desberdinak...

26. Entzunaldia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or./CDa, abestiak, 22. pista/DVDa

Kultura bakoitzeko musikak gainerakoetako musikatik bereizten dituen berezko ezaugarri ugari ditu: estiloa, instrumentuak, erritmoak, doinuak, hizkuntza... Ekar itzazue gelara munduko hainbat tokitako musikak, eta, taldean entzunez, saia zaitezte ezaugarriok identifikatzen eta bereizten.

- *Zer kulturatakoa da, zure ustez, musika hau? Nola dakizu?*
- *Zer hizkuntzatan abesten dute? Letra baldin badu.*
- *Zer instrumentu entzun eta erabiltzen dira?*
- *Zer estilotako musika dela esango zenuke?*
- *Ba al du musika honek gure kulturako musikarekin antzekotasunik? Eta beste kultura bateko kutsurik?*
- *...?*

Munduko musikak aztertu ostean, entzun itzazue CDko eta DVDko abestiak, eta taldean hitz egin ezazue:

- *Zer kulturatakoak dira?*
- *Zer kulturaren kutsua dutela esango zenuke?*
- *Zer ezaugarrik ematen diete kutsu hori?*

CDko entzunaldia euskal trikitilariak trikitixa eta panderoz jotako baltsa da.

DVDan, berriz, abesbatza batek abestutako afrikar abesti bat ikusteko aukera duzue. Kantariak, abestu ahala, esanahi jakin bat duten mugimenduekin osatzen dute emanaldia. DVDan ikusiko duzuen bezala, zuzendariak kantari buruzko azalpenak ematen ditu: nongoa den, kontatzen den istorioa, mugimenduen esanahia, etab. Ondoren, haurrek kanta keinuz hornitua abesten dute. Atal honi dagokion DVD zatia osorik ikusi gabe, jar ezazue, lehenik eta behin, abesbatza kanta interpretatzen ari den zatia bakarrik, hor goian proposaturiko galderen inguruan hitz egiteko. Bukatzean, ikus ezazue atala osorik.

Entzunaldiari dagokion hor goiko jardueraren helburu nagusia: kultura ezberdinetako musikak bereiztea eta horiei buruzko hainbat ezaugarri taldean identifikatzea da.

Jarduera honek, halaber, ikasleei lagunduko die konturatzen, gaur egun komunikabide eta komunikazio bide berrien eraginez, kulturen arteko ukipena, eragina eta mailegutza gertatzen dela musikan ere, eta badirela kultura jakin bati dagozkion ezaugarriak bakarrik dituzten abestiak (tradizionalak), nagusiki kultura bati dagozkion ezaugarriak dituen, baina beste kultura bateko besteren bat hartu dutenak ere badaudela, eta baita kultura askotako ezaugarriak hartu dituztenak ere. Beraz, musikan ere fenomeno berri bat ikusten ari gara azken urteotan, nolabaiteko “mestizaje musikala”, euskal taldeetan ere: *Negu gorriak, Oreka TX, Kepa Junkera eta Oskorriren* hainbat abesti entzutea besterik ez dugu. Aukera izanez gero, aprobeitza ezazue, gelan, horietako abestiren bat edo beste entzuteko eta ezaugarriak erreparatuz aztertzeko.

Gelan aztertutako musika guztien artean, zuen erakusketa girotzeko gustukoena eta egokienak aukeratu taldean eta graba itzazue CD batean.

Jarduerak

CDko entzunaldia

- Taldean elkarrizketa: CDko entzunaldia balsa dela esan diegu ikasleei; orain, balsa zer den argitzeari ekingo diogu:

- *Ba al dakizue zer den balsa?*

balsa

iz. Alemaniar jatorriko dantza, erritmo hirutarrekoa, lehen aldiak oso azentu gogorra izanik. Bikote-dantza da, pausatua eta etengabeko bira-higiduraz dantzaten dena; dantza horren doinua.

- *Ba al dakizue nola dantzaten den?*

- *Ezagutzen duzue balsen bat? Zein?*

1. mailan, Haydenen minueta bals-erritmoan dantzaten ikasi zuten. Zoazte 1. mailkoengana eta esan iezaiezue zuen memoria freskatzen laguntzeko; gero, dantza ezazue eurekin batera minueta.


- Dantza:

- Lehenengo mailakoekin dantzatutako dantza eredu izanik, entzunaldia dantzatzeko urrats erraz batzuk asmatzea proposatzen dizuegu. Horretarako, entzun ezazue abestia behin baino gehiagotan, haren egitura barnera dezazuen. Gero, ikasleak taldetxoetan jarrita, ekin diezaiotela urratsak asmatzeari. Bukatzean, talde bakoitzak talde handiaren aurrean dantzatuko du asmatutako dantza.

Talde txikietan lanean hasi aurretik, saiakera talde handian egin dezakezue, esaldi edo motibo bakoitzarentzat urrats jakin batzuk asmatuz. Hor behean dituzue proposamen batzuk.

- Dantzaren oinarriko urratsa, alegia, hankek markatu beharrekoa, balsarena izan daiteke. (1-2-3,1-2-3).

- Entzunaldiaren egitura:



- Dantzarien kokapena:
 - Lau dantzari lerro. Binaka aurrez aurre.
 - Bi dantzari lerro.
 - Bi korro: bat barruan, bestea kanpoan.
 - Lau korrotan bilduta ikasleak.
- Esaldi edo motibo batzuentzako urratsak:

A

A = Balsean, aurrera 4 urrats, atzera 4 urrats.

A' = Aurrera 4 urrats, atzera 3 urrats eta buelta bat, eskuak jota eran.

A = a bezala edota bariante batekin, beste alderantz begira urrats berberak egin.

A' = Aldaera = Beste alderantz begira egin.

B = Balsean, bikoteka bueltak eman erritmoari jarraituz. Zuek pentsatu zer aldetarantz eta zer norabide hartu, zailtasun-maila erraztu edo zaildu, hori bai, esaldia bukatuz doan heinean, izan kontuan hurrengo esaldirako toki egokian izan behar duzuela. Alde batera edo bestera dantza daiteke, edota bikotea aldatuz.

C = Korro handi bat egin, itxiz eta zabalduz doana. Edo korroan lagun baten atzetik eta bestearen aurretik pasa. Bukatze aldera, korroa itxi eta lerroak egin daitezke.

- Abesbatza: Lehenengo proposamena DVDan agertzen den abestia keinuz eta ahotsez imitatzea eta ikastea litzateke.

Bigarrena, taldetxoak osatuz, guk nahi dugun musika aukeratzea eta haren doinua mantenduz, ezagutzen ez dugun hizkuntza batean, abestiari letra asmatzea litzateke. Hizkuntza hori silaba ezberdinek osa dezakete, ez dute zertan zentzu jakin bat izan, ezta hizkuntza jakin bateko hitzen antzik ere ez. Aho-korapilo gisan edota hitz-jolas moduan asmatu eta bat-batean inprobisa dezakezue, taldekide bakoitzak esaldiaren edo abestiaren zati bat inprobisa dezake edota kide guztiek, aldi berean, inprobisatutakoa abestu. Ezagutzen ez dugun hizkuntza batean hitz egiteak zailtasun handia du, arreta jartzea eskatzen baitu; beraz, abesten hasi aurretik, ariketa txiki bat egin dezakezue: taldetxoetan, ezagutzen ez duzuen hizkuntza horretan elkarriketa sortzea eta zerbait komunikatzen saiatzea. Adibidez:

Sa-pe-ki-ri-tza-ma-tu-na-ta...

Ondoren, aukeratutako musikarekin batera egingo dugu gauza bera, letraz eta keinuz hornitu musika hori.

Talde handian, letra jakin bat asmatu eta keinu jakin batzuk adostu eta sortutako lana entseatuz gero, berori eta baita asmatutako dantza ere zuen proiektuan txerta ditzakezue.

27. Liburu artean

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or.

“Liburu artean” atalak, oraingoan, ipuin bakarra aurkeztu beharrean, Kondairak izeneko saila aurkezten digu. Kondaira horien bidez herri ezberdinek natura eta mundua ulertzeko duten modu, pentsamolde eta sinesmenen berri izango dugu. Jarrai iezaiezue liburuak proposatutako urratsei, ikasleek kondairak eta ipuin zaharrak kontatzen dituzten liburuak ezagutu ditzaten eta, bidenabar, bat edo beste irakurtzeko ere, hori izan bailiteke bidea, gure ikasleen artean irakurzaletasuna pizteko.

Liburuko proposamenez gainera, irakurketa ozena lantzeko aukera eskaintzen duten kondaira hauek ere aprobetxatzea proposatzen dizuegu:

- Talde txikiak osatu, kondaira-liburu bezainbeste.
- Talde bakoitzak kondaira-liburu jakin bat izango du esku artean.
- Taldekide bakoitzak, txandaka, kondaira bat irakurriko dio taldeari ozenki. Horretarako, aurreko egunean etxera eramango du liburua, kondairaren irakurketa ozena entseiatzeko.
- Egunero kondaira bat entzungo dute ikasleek talde txikietan; bukatzean, elkarrizketa egingo dute, kondairari buruz hitz egiteko:
Gustukoa izan duzu? Zergatik? Zer da kondaira honek esaten duenetik nabarmenduko zenukeena? Zergatik?...?

Kondairen irakurketa aste jakin batean zehar egin dezakezue, eta ez du derrigorrez zertan memento horretan izan, aurrerago izan daiteke, edota unitate hau lantzen duzuen bitartean, adostutako egun jakin batean, adibidez, arratsalde batean. Dena den, jarduera hau burutzen hasi aurretik, lehenengo kondaira irakasleak berak kontatzea proposatzen dizuegu, irakurketa ozenaren eredu izateko.

Kondairek eta ipuin zaharrek lotura estua dute ahozko kontaketaekin. Hori dela eta, ozenki irakurtzeko agindu beharrean, irakurritakoa euren erara kontatzeko ere eska geniezaieke ikasleei. Eta hori zailegia edota aspergarriegia egingo balitzaie, irakasleak berak har lezake kontalari-lana. Ez dezagun ahantz “Liburu artean” sailaren helburu nagusia zaletasuna, atsegina, interesa... eragitea dela, eta, horretarako, bide egokia izan liteke irakasleak berak hartzea irakurle edo kontalari zereginak, baita bideo- eta audio-baliabideak erabiltzea ere (ipuin-kontalarien grabazioak).

28. Hitzunak eta hizkuntzak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or./Irakurgaiak 5, 73. eta 74. or.

Ikasleek, bakarka, liburuko lehenengo ariketan proposatutako jarduera osatzeari ekingo diote euren koadernoan. Aukerako edo hauta-lanerako irakurketa eginez, munduko hizkuntz errealitateari buruzko hainbat datu eta kontzepturi buruzko informazioa aurkitu edota ondorioztatu beharko dute ikasleek: hizkuntza handiak eta txikiak, hiztun elebidunak eta eleanitzak, hizkuntza nagusiak, ama-hizkuntza. Gero, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu jarduera berrikusteko. Jarduera hau aproposa izan daiteke, irakasle, koadernoaren antolamenduari buruzko datu batzuk jasotzeko: antolamenduari eta txukuntasunari dagozkienak, adibidez.

Ondoren, tarte bat emango diegu ikasleei, ahozko jardueran proposatutako gaien inguruan hausnartzeko, bereziki euskararen erabileraren inguruan, horrek dituen abantailak eta horretarako dituzten zailtasunak aztertuz. Euren koadernoan datu edo oharren bat jasotzeko ere tarte emango diegu, bukatzean, talde handian, elkarrizketa bultzatuko baitugu, horren inguruan hitz egiteko.

29. Esazu horrela!

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 9. lan-koaderno, 58. orrialde, 60.era/CD-ROMa

Gure ikasleen ahotan sarri entzun daitezkeen euskararen erabilera makurrak zuzentzea eta gure hizkuntza aberastea du helburu jarduera honek. Ikasleek jarduera bakarka osatuko dute. Gero, talde handian, jarduera berrikusi eta gure artean ohikoak diren beste hainbat erabilera oker jasotzeari eta zuzentzeari ekingo diogu.

Nahi izanez gero, aukera polita duzue hau, euskararen zuzentasunaren izenean, erabilera okerren panela martxan jartzeko. Panel hau, jendeztatuen egoten den ikastolako pasabide eta tokiren batean jar dezakezue. Bertan, boligrafo bat soka batekin zintzilika ezazue, edozein lagunek bere ekarpena egiteko gonbitea eginez. Jar itzazue gelan landutako hainbat erabilera oker ere eta ondoan horien baliokide zuzenak. Proposamen honek ikastola osoaren euskararen zuzentasunean eragin handia eta baikorra izan dezake.

CD-ROMean, euskararen zuzentasuna eta aberastasuna lantzeko hainbat jarduera dituzue.

30. Nola esaten da...?

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 5, 75.or.

Bakarka lehenik eta talde handian gero, irakurgaietako txisteak irakurriko ditugu. Gero, talde txikietan, ikasleek euren sormena askatu eta mota horretako txiste berriak asmatzeari ekingo diote. Bukatzean, horiek entzuteko saiotxoak martxan jar ezazue.

31. Buelako komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei komikia irakurtzeko eta horri behatzeko. Gero, hor behokoaren antzeko galdetegi emango diegu, komikia aurrean dutela, hausnar dezaten talde-elkarrizketa martxan jarri aurretik.

- Zer adierazi nahi du komikiaren izenburuak, hau da, "Elkar ondo hartu eta ... elkar ulertu" izenburuak?
- Eguneko zein memento (goiza, eguerdia, arratsaldea, iluntzea) da komikiko lehenengo binetan? Nola dakizu?
- Zergatik galdetu diola uste duzu Manexek Ibrahimi jolastera joan nahi duen? Nola sentituko dela uste duzu Ibrahim?
- Beha iezaiozu lehenengo binetari eta imajina ezazu memento batean bizia hartzen duela. Zer soinuz lirakeke nagusiki entzuten direnak? Nola dakizu?
- Bigarren binetan, zergatik eta zertarako estaltzen du ahoa Jonek eskuarekin?

- Zer adierazi nahi du Manexek “180° ekialdera”? Uxuek zergatik begiratu duela uste duzu okerreko aldera?
- Zergatik esaten dio Uxuek Maddiri nahikoa dela eta kokoteraino dagoela? Zer egin du, bada, Maddik? Zer dira nikikinikiak? Nike, nikiak = Markako arropa adierazi nahi da. Zure ustez Uxuek ondo jokatu al du hori esatean? Zergatik?
- Beha iezaiozu azken aurreko binetan Maddiri. Zer adierazten du bere gorputzak eta aurpegiak? Beldurra, lotsa, harridura edo damua? Nola dakizu? Zergatik sentituko duela hori uste duzu? Zuk inoiz bizi izan duzu antzeko egoerarik? Noiz eta zergatik?
- Zergatik erantzuten dio Jonek Aitorri esanez adarrik ez jotzeko?
- Beha iezaiozu Ibrahimek lurrean marraztutako dianari eta esandako hitzei erreparatuz, nola jolasten dela uste duzu jolas horretara? Ezetz asmatu!

32. Munduko jolasak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 9, 76. or. eta 77. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei irakurgaietako hiru jolasak bakarka irakurtzeko eta gustukoena aukeratzeko. Irizpide horren arabera taldeak osatuko ditugu. Talde bakoitzak aukeratutako jolasa egiteko beharrezkoa den materiala bildu eta jolasa prestatuko du, jolasteari ekiteko. Helburua ikasle guztiak hiru jolasetan eta bertan proposatutako aldaeretan jolastea da, irakurgaietan adierazitako urratsak ondo ulertu eta horiei jarraituz.

Aukera polita litzateke hau, munduko jolas ezberdinen bilketa (euskal jolasak tarteko) eta politenen aukeraketa egin ostean, “Munduko jolasen astea” antolatzeko. Aste osoko jolasorduetan, gure ikasleek jolastu nahi duen ikastolako edozein adinetako lagunei, jolasa zertan datzan azaltzeaz gainera, munduko jolasak ezagutu eta jolasteko aukera emango lieke.

33. Munduko aberastasunaren banaketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei Iparraldea eta Hegoaldeari buruzko testua bakarka irakur dezaten. Ondoren, testuko ideia nagusia bereiziko dute, hainbat aukeraren artean egokiena hautatuz. Hor behean duzu aipatu jarduera, diktatu iezaezue, koadernoan kopia dezaten testua irakurri aurretik.

(Ag) Ondorengo zein esaldik laburbiltzen du, zure ustez, goiko testuan ematen den informaziorik garrantzitsuena?

- a. Aberastasunen jabe garen gehienak Ipar Hemisferioan bizi gara.
- b. Aberastasunen banaketaz ari garenean, Iparra hitza herrialde aberatsez eta Hegoa, berriz, herrialde txiroez hitz egiteko erabiltzen dira.
- c. Iparraldeko herrialde garatuetan ere badira oso pertsona txiroak.

Bukatzean, taldean, “Sailkapen horrek egiaren zati bat islatzen badu ere, ez du errealitatea osotasunean erakusten” esaldiari buruz hitz egiteko elkarrizketa bultzatuko dugu. Ikasleek euren adostasuna edo adostasun eza adierazi behar dutenez, bultzatuzue ikasleak iritzia adierazteko egokiak diren esaldiak erabil ditzaten:

- *Ni ez nago ados esandakoarekin, ... uste dudalako.*
- *Ni ados nago esandakoarekin, ... uste dudalako.*
- *Nik uste dut esaten dena ez dela egia osoa, ... uste dudalako.*
- *Nire ustez, esandakoa egia da, ... uste dudalako.*
- *Uste dut arrazoia duela esatean ...; hala ere, ez nago guztiz ados ...*
- ...

Lehen munduan eta baita Hirugarren Munduko hainbat tokitan ere, bada aberastasunean bizi dena eta baita pobrezian bizi dena ere. Hori litzateke sailkapenarekin adostasun eza adierazteko arrazoi nagusia, hori bai, ikasleek adibide zehatzak jar ditzatela, hau da: *Gu iparraldean edo hegoaldean bizi gara? Gure inguruan ba al dago pobreziarik? Beraz, ...*

Jarduerari amaiera eman aurretik, irakur ezazue azken ariketa, eta erabaki ezazue askari-merienda egiteko bakoitzak zer ekarriko duen eta baita noiz egingo duzuen ere.

Jolasa (askari-merienda) hasteko unera arte ez eman ikasleei jolasaren inguruko pista bakar bat bera ere.

34. Jolasa: Askaria

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Ikasleei askari edo hamaiketako bat egingo dugula adieraziko diegu eta taldean erabakiko dugu behar ditugun janari, edari zein platerak, etab. nola eskuratuko ditugun (dirua jarrita, bakoitzak zerbait etxetik ekarrita...).

Eguna iristen denean, ikasleek mahaiak eta espazioa antolatuko dituzte, baina janariaren eta edariaren antolaketa eta banaketaz irakaslea bakarrik arduratuko da.

Askari edo hamaiketako hau bi eratan buru dezakegu:

- Errazena kontinenteak eta herrialdeak kontuan hartuta egitea litzateke; hau da, gelan, adibidez, 7 mahai jarriko genituzke. Mahai bakoitzak lurralde edo kontinente jakin bat ordezkatzeko duenez, haren irudia eta izena edukiko luke jarrita: Afrika, Europa, Australia, Ipar Amerika, Ertamerika eta Hegoamerika, Asia.

Izen horietan berak erabiliz, txarteltxo edo papertxo batzuk egingo ditugu. Gelako ikasleekin zazpi talde egin eta ateratzen den kopuru hori adina txarteltxo egin lurralde bakoitzaren izenarekin. Txartelak nahasi eta ikasleak gelara sartu aurretik banatu papertxoak eta adierazi tokatu zaion lurraldearen izena duena mahaira joan behar duela eta mahai horretan dagoena bakarrik janez eta edanez egingo duela askaria, baina ezin direla ezer jaten hasi irakasleak esaten duen arte.

Jakina, mahai bakoitzean aurkituko duten janari-edari kopurua oso desberdina izango da, hau da, Europako mahaian eta Ipar Ameriketako mahaian ekarritako janariaren eta edariaren erdia baino gehiago aurkituko dute, Afrikako mahaian ez da ia ezer egongo, ezta Hegoamerika eta Ertamerikan ere...

Hortik aurrerakoak ikasleen erreakzioen arabera irakasleak kudeatuko ditu. Azken batean, desberdintasunaren eta injustiziaren ideia da agerian utzi nahi duguna jolasaren bidez eta egoera honi konponbidea guztien artean proposatu eta bideratu ondoren, munduko injustiziaz hitz egin eta konponbideak proposatzeko hedatuko dugu egoera.

- Jolasaren beste bertsio batek (kuboak eta karratuak) prezioa, balioa eta bien arteko erlazioa bereiztera, alegia, injustizia esperimendatzera, aztertzeraz, ulertzen saiatzeraz eta konponbideak gauzatzera bultzatuko gaitu.

Dena prest dugunean, zera esango diegu ikasleei: “Jatekoak jango ditugu, baina, horretarako, irabazi egin behar dugu janaria. Jan eta edan ahal izateko, lana egin beharko dugu”.

Gelan bi talde egingo ditugu: pribiligiatuak eta ez-pribiligiatuak. Baina eurei ez adierazi zatiketa hori. Bi talde egingo dituzuela esan eta kito.

Pribiligiatuak egin behar dituzten karratuak eta ez-pribiligiatuak egin behar dituzten kuboak nola egin, arbelean erakutsiko dugu. Karratuak ebaki egin behar dira eta kuboak zeloz itsatsi.

Hamabost minututan egingo dituzte irudiak. Denbora hori amaitzen denean, alde zuzenik prestatutako prezioen zerrendak zintzilikatuko ditugu eta honako hau esango dugu: “Zabalik dago jangela. Bakoitzak bere produkzioa edateko eta jateko zerbaiten truke alda dezake.

Kasu honetan, jateko eta edateko guztia mahai edo mostradore moduko batean egongo da.

Prezio posible batzuk (ikasleen trebetasunaren arabera):

Edalontzi bat zuku: 6 unitate.

Ogitartekoa: 8 unitate.

Edalontzi bat ur: 4 unitate.

Fruta pieza bat: 5 unitate.

...

Unitatearen truke emango da janaria. Berdin dio karratuak egin edo kuboak. Ikasleek protesta egingo dute ” Horrek ez du balio”, “Ez dago eskubiderik”, etab.

Bestela, probokatu egin beharko dugu: “Konforme?”

Erreakzioa izan eta gero, elkarrizketari ekingo diogu:

Zergatik diogu “ez du balio” edo “ez dago eskubiderik”?: ikasleek ondorioztatu beharko dute ez dela berdina karratuak edo kuboak egitea.

Zergatik ez da gauza bera karratuak edo kuboak egitea? Ikasleek berehala ikusiko dute kuboak egitea karratuak egitea baino zailagoa dela. Ahalegin eta denbora gehiago eskatzen du kuboak egiteak. Denbora berebean karratu gehiago egin daitezke.

Justua izateko nola izan beharko luke: ikasleek proportzioa ikusi beharko dute. Batek 30 kubo egin baditu 15 minututan, eta beste batek denbora berean 5 kubo. Erlazioa, kubo bakoitzeko 6 karratu izango dira.

Nork eragin du injustizia? “Irakasleak, berak finkatu baititu prezioak” esan beharko lukete ikasleek.

“Ni justua izan naiz, prezio berdinak jarri ditut denentzat” esango du irakasleak. Eta ikasleek erantzungo dute: “Ez duzu kontuan hartu lan bakoitzaren balio erreala”.

Zer alde dago balioaren eta prezioaren artean? Egiten kostatu den arabera edota premiak asetzeko duen gaitasunaren arabera neurtzen dela produktu baten balioa ikusi beharko lukete ikasleek.

Pentsa dezagun erosten ditugun gauzetan. Zuzen balioetsi ondoren jartzen al dira erosten ditugun gauzen prezioak? Nola sentitu zara prezioak ikusi dituzunean?

Zer ondorio atera duzu jarduera honetatik?

Lehenengo unitatean enpatia zer den ikasi zenuten. Galde iezaiezue ikasleei jolas honek zerikusirik ba ote duen enpatiarekin.

35. Ekoizleak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 5, 78. or.

Talde handian, **Irakurgaiak** liburuko “Ekoizleak” testua irakurriko dugu, eta elkarrizketa bultzatuko dugu gaiaren inguruan (injustizia eta pobrezia) hausnartzeko eta hitz egiteko.

36. Multinazionalak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei orrialde horretan agertzen den jarduera bakarka osatzeko. Gero, talde handian, hura berrikusteari ekingo diogu.

Jarduera honen bitartez, *multinazionalak*, *globalizazioa* edota *inperialismoa* bezalako kontzeptuetara hurbilketa egin nahi da, ikasleak hainbat kontsumo ohitura eta produkturen aurrean jarrera kritikoa garatzen has daitezzen.

Horrez gainera, hizkuntzari dagokionez, paragrafo bakoitzeko ideia nagusia bereizten ikasteko jarduera ere bada, ikasleek bakarka egingo badute ere jarduera, taldean berrikusteak lagunduko baitie lan hori nola burutzen den jabetzen. Jardueraren berrikuspenean hainbat izan daitezke testu honetan ikasleek ulertzen ez dituzten hitzak, horiek argitzen eta ulertarazten irakasleak lagundu beharko die, hainbat azalpen eta adibide jarritz.

37. Ziklograma: kafe ekoizleak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or.

Kafea bezala edozein produktu ekoizten denetik salgai jartzen den arteko prozesuan parte hartzen dutenen artean irabaziak nola banatzen diren jabetzeko, ikasleek, bakarka, euren koadernoan ziklograma osatu, interpretatu eta euren iritzia idazteko eskatuko diegu. Ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu, bakoitzak gai honen inguruan duen iritzia kritikoa adieraz dezan.

38. Lagunartean: Produktuen markak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or.

Globalizazioaren eragina ikaragarria da, eta baita gure ikasleen artean ere, eurentariko askoren janzkerari eta jokabideari erreparatzea besterik ez dago, markako arropak, jolasak... Aurreko jardueretan multinazionalen inguruko informazioa eta produktu horien guztien jatorriaren berri izan ostean, orain, lagun arte honetan, horiekiko guztiekiko euren jokabidea aztertzeari ekingo diogu, haren kontzientzia izan eta kritiko eta kontsekuenteki jokatzen ikas dezaten.

Ikasleek bakarka irakurriko dute jarduera eta euren koadernoan galdera bakoitzaren inguruan duten iritzia ere jaso egingo dute, tutoretzan gai honen inguruko hitz-errota antolatzeko beharko baitituzte.

Irakasle, jarduera honetan, elkarrizketari dagozkion hainbat irizpideri behatzeaz gainera, ikasleek euren jokabidearen inguruan duten hausnartzeko eta iritzi kritikoa eratzeko gaitasunari behatu eta horren inguruko oharrak jasotzeko aukera ere aprobetxa ezazu.

39. Hitz-errota: Aberastasuna

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or./Irakurgaiak 5, 79. eta 80. or.

Talde handian, hitz errotari dagokion orrialdea goitik behera irakurriko dugu, eginbeharrak jabetzeko. Ondoren, ikasle bakoitzak bere zereginari ekingo dio, hitz errotan emandako urratsen arabera. Bukatzean, talde txikietan, hitz-errota martxan jarriko dugu.

Posible da ikasleren batzuek irakurgaietan dituzten bi testuak, Pako Aristiren “Ni aberatsa naiz...” testuaren zati bat eta “Iparra eta hegoaren arteko elkarrizketa”, ulertzeko zailtasunak izatea, eta, horregatik, bidera ezazu irakurraldia egokien ikusten duzun moduan kudeatuz, alegia, binaka jarrita eta zure azalpenak tarteko edota talde txiki edo handian zure argibideak, alegia, hausnartzen lagunduko dien galdera bidezko irakurraldia, emanez.

Jarduera honek hainbat prozedurari behatzeko aukera paregabea eskaintzen du.

- Ikasleen koadernoak: jarduera jasotzeko modua (antolamendua, txukuntasuna, erreferentziak...), idatzitakoaren zuzentasuna (ortografiko eta sintaktikoa), ikasleen iritzia eta justifikazioak (iritzia eta arrazoitzeko argudioak erabiltzeko modua eta baita zuzen idatzita dauden ere, alegia, esaldi kausalen erabilera).
- Elkarrizketari dagozkion hainbat irizpide: parte hartzea, egokitasuna... Ikus unitate hasierako koadroa.
- Behatzailearen jarduna.

Oharra: P. Aristiren *Note Book* liburuan gai hauekin zerikusia duten hainbat testu interesgarri aurkituko dituzue. Agian, asko ez dira ikasleei irakurtzeko modukoak, baina bai irakaslearentzat gaiaren trataerarako ideiak biltzeko egokiak direnak.

40. Etorkinak

Lan egiteko era: Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 36. or.

Binaka, ikasleek etorkinei buruzko jarduera irakurri eta osatuko dute. Ondoren, liburuko galderei jarraituz, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu, globalizazioaren ondorioz ugaritzen ari diren fenomeno batzuen inguruan hitz egiteko: migrazioak, etorkinak.

Berria.info-n egindako bilaketatik hautatutako titularrek etorkinen errealitateari buruzko hainbat informazio eskuratzeko edo ondorioztatzeko balio dezakete. Aprobetxa ezazue aukera bilaketa hori egin eta informazioa eskuratzeko, Internet bidez nahiz prentsa arakatuz egin dezakezue. Hor behean aukerako titular batzuk dituzue:

- 06/05/16 Milatik gora etorkin iritsi dira azken egunetan Kanariar Uharteetara
- 06/05/14 Berrehun lagun immigrazio legearen kontra Baionan
- 06/05/12 Etorkin adingabeak jipoitu egin dituzte Zornotzan
- 06/05/10 GOGOETA. Immigrazioaren ondoriozko ezinegona
- 06/02/23 Etorkin adingabeei bi etxebizitza eskaintzea aztertzen ari da Bizkaiko Diputazioa
- 06/01/26 325 etorkinek parte hartu zuten iaz Aisa ikastaroetan. Jaurlaritzak antolatzen ditu, etorkinek euskara ikasteko eta euskal kultura ezagutzeko
- 05/10/28 ETXEBIZITZA. Etorkin askok ez dute izango zozketara aurkezterik Gasteizen
- 05/10/20 Lau etorkin esplotatzeagatik lau urteko kartzela zigorra jaso dezake enpresaburu batek
- 05/09/30 Nafarroako populazioa handitu eta gaztetu egin da etorkinen etorrerari esker
- 05/08/03 Araban 1.181 etorkinek legezatu dute beraien egoera
- 05/06/18 Lan kontraturik ez zuen etorkin bat kaleratu izana bidegabea dela dio epaitegiak
- 05/06/01 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan langile etorkinen erdia emakumeak dira. Etxeko lanetan edota umeak, adinekoak zein gaixoak zaintzen lan egiten dute gehienek
- 05/06/01 Lan merkatuko premiak asetzera etorri dira etorkin gehienak
- 05/02/18 Markinan hiztegi eleaniztuna argitaratu dute etorkinentzat
- 05/02/16 Enpresaburuek langile etorkinen premia dutela gogorarazi dute
- 05/02/09 Herri hartzaileko hizkuntza ikastea garrantzitsua dela diote etorkinek. Euskara ikasteak hemengo gizartean hobeto barneratzeko aukera eskaintzen duela agertu dute
- 05/02/09 Etorkinen jatorrizko hizkuntza nola gorde aztertzen ari dira Bilbon. "Immigrazioa eta hizkuntza" jardunaldiak antolatu dituzte Unesco Etxeak eta Jaurlaritzak
- 04/12/01 Etorkinen elkarteek federazioa sortu dute Nafarroan, biltzeko. Zortzi taldek eta 800 lagun inguruk bat egin dute, oraingoz, ekimenean
- 04/11/26 Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko etorkinen erdia bertakoekin bizi da
- 04/11/26 Etorkinekiko tolerantzia gero eta txikiagoa da. EAEn atzerritar gehiegi bizi dela dioten gazte kopurua bikoiztu egin da azken lau urteetan
- 04/09/11 Donostian atxilotutako hamaika etorkin beren jaioterrira bidali dituzte

41. Ipuina: Hego haizeak iparrerantz jotzen duenean

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 36. or./Irakurgaiak, 81. orrialdetik 85.era

Ikasleek, bakarka, “Irakurri aurretik” izeneko jarduera irakurri eta osatuko dute. Gero, ipuina irakurtzeari ekingo diote.

42. Ipuina irakurri ondoren

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or./Lan-koadernoa, 61. eta 62. or./CDa, abestiak, 21. pista

Ikasleek orrialde honetako lehenengo jarduera irakurri eta, bakarka, lan-koadernoko jarduera osatuko dute. Bertan, nagusiki, testuko gaia, testuaren komunikazio-asmoa eta testu motaren inguruko hausnarketak bideratuko dira, baita hainbat hitz, esamolde eta esaldiren interpretazioa eta ulermen zehatza ere. Ondoren, ikasleek, bukatu ahala osatuko dituzten taldetxoetan egindako lanaren berrikuspenera egingo dute, erantzunak kontrajarriz, justifikatuz, etab.

Orrialde honetako gainerako jarduerak talde handian osa ditzakezue.

Beste hainbat iradokizun:

- Hego-haize, ero haize

- *Haize* hitzarekin osatutako lokuzioen inguruko lanketa. Ikus.: armiarma.com / lokuzioak • *haize alde joan, haize eman-emaile, haize hotza jan, haize kontra joan, haize ona, haize-putz, haizeak eduki, haizea buruan ibili, hego-haizeak eragin, iazko haizea, buruan haizea ukan, sorgin haize...*

Eta gainera: *hego-haizea... andra-haizea, uso-haizea...*

- Mohammeden jatorria

- Narratzailea, narratzaile aldaketa. Testuko markak: aditzaren pertsona, puntuazio markak (kakotxak, marra...).

- “Joxe Mari”, “Iñaki”

Hizkuntzaren erabilera baztertzailea.

43. Etorkinak: Ipuina irakurri ondoren

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or./CDa, abestiak, 20. pista/Irakurgaiak 5, 86. or.

Talde handian liburuak proposatutako ariketak osatuko ditugu. Funtsean, etorkinen egoeraz, beren sentimenduez, beharrez, integrazio nahiaz eta zailtasunez... hausnartzera gonbidatuko dira ikasleak. Oso eraginkorra izan liteke jatorri eta egoera desberdinetako etorkinekin harreman zuzena bideratzea.

Beste hainbat iradokizun:

Etorkinak eta euskara

- Txirrita bertsolaria, umoretsua, adar-jotzailea. Bertsolaria: erantzun azkarrekoa, hitz-jokoen zalea, hizkuntzaren jabea... Integrazioaren gaia.

Iparra eta hegoa, erlatiboa

- Erlatibotasuna beste gai batzuekin erlazionatu: aberastasuna...

44. Olerkiak

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 5, 87. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei irakurgaietako “Zuriak eta beltzak” eta “Ni bezalakoak” olerkiak irakurtzeko eta irakurritakoaren inguruan hausnartzeko. Gero, elkarriketa bultzatuko dugu bakoitzaren inguruan mota honetako galderak eginez:

- *Zeri buruzkoa da olerkia?*
- *Zein dira aipatzen diren ideiarik garrantzitsuenak?*
- *Zer iritzi duzu esaten denaren inguruan?*

45. Lagun artean: eskubide unibertsalak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or.

Ezertan hasi aurretik, NBE (ONU) siglek zer adierazten duten eta erakunde hori zer xederekin sortu zen azal iezaiozue ikasleei:

1945ean, munduko nazioen arteko bakea eta segurtasuna ziurtatzeko asmoz NBEa (Nazio Batuen Erakundea, ONU bezala ezagutzen dena) sortu zen. Nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko konpromisoaz gainera, estatuen arteko lankidetzak ekonomiko, sozial eta kulturala ere bultzatzea du helburu erakunde horrek.

Ondoren, osa ezazue jarduera taldean.

46. Lagun artean: bidezko merkataritza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or./Irakurgaiak 5, 88. or.

Talde handian, jarduerari dagozkion testuak irakurriko ditugu, irakaslearen laguntzaz testuek adierazten duten ideiarik hurbiltzeko eta klipean agertzen diren esaldien esanahiaren inguruan hausnartzeko. Gero, liburuak proposaturiko galderen inguruan hitz egiteko elkarriketa bultzatuko dugu.

47. DVDA: Elkartasun ekimenak, Saharako haurrak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 40. or./DVDA

DVDan gure inguruan antolatuta ohi den elkartasun-ekimen baten berri ematen da. DVDA ikusteaz gainera, zuen herri edo hirira bertaratzea eta bertan dauden elkartasun-ekimen eta erakundeetatik zuzeneko informazioa jasotzea ere proposatzen dizuegu. Gelara ere ekar dezakezue lagunen bat elkarriketa egiteko, edo eskura duten filmazioen bat aurkeztu eta horren inguruan hitz egiteko...

48. Bertsoz

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 40. or./DVDa, bertso saioa/9. lan-koaderno, 63. orrialdetik 66.era

Talde handian irakurriko dugu jardueraren sarrera eta lehenengo ariketa. Gero, ikasleei proposaturiko galderen inguruan hausnartzeko tarte bat eman ostean, elkarrizketa sortuko dugu horien inguruan hitz egiteko.

Horren ostean, taldean, Jon Sarasuaren bertsoak DVDan ikusi eta entzungo ditugu, ikasleek aurrez irudikatu dutena berresteko eta bertsoak kontatzen duenaz jabetzeko.

Hona hemen entzungo duten bertsoa:

"Pobreak gara" zioen amak
ta irteteko noranahi
Euskal Herrian pozik izan naiz
urdaila bete ta lasai
baina nik nire jendearekin
basamortura joan nahi
negar gehiago egiten degu
barre gehiago ere bai.

Euskadi, Sahara
zotina eta algara
Sahara, Euskadi
mundu bat eta puska bi.

Gauzak erosi, filmak ikusi,
kotxez ibili, bapo jan...
Eskerrik asko guztiagatik
ez da amets txarra izan!
Ederragoa litzake dena
Euskadin eta Saharan
han daukaguna balego hemen
ta hemen daukaguna han.

Euskadi, Sahara
zotina eta algara
Sahara, Euskadi
mundu bat eta puska bi.

49. Abestia: Irria

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, abestiak, 19. pista

Pantxoa eta Peioren irria abestia entzungo dugu taldean. Ondoren, arbelean idatziko dugu abestiaren letra, aipatzen dituen ideien gainean hausnartzeko eta bakoitzak bere iritzia emateko. Letra CDan duzue idatzita.

Hasteko, ezagutzen ez ditugun hitzen esanahia argituko dugu, hiztegian bilatuz beharrezkoa balitz. Gero, irriak pertsonengan duen eragina adierazten duten hitzei erreparatuz, horren gaineko gure iritzia adierazteari ekingo diogu.

Irriak duen indarrak jabetzeko, jardueratxo bat egitea proposatzen dizuegu. Esan ikasleei egun batez ikusten dituzten lagun guztiei irribarre goxoa luzatzeko (goxoa eta benetakoa) eta haren eraginari behatzeko, baita irribarre jasotzen duen pertsonaren erantzunari ere eta haren erantzunak norberarengan duen eraginari. Hurrengo egunean, egin ezazue elkarrizketa, esperientziaren inguruan hitz egiteko.

50. Proiektua gauzaten: Berria

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 41. or./Irakurgaiak, 89. orrialdetik 91.era/9. lan-koadernoa, 67. orrialdetik 75.era/CD-ROMa

Proiektua nola burutu jakiteko, talde handian irakurriko dugu jarduera. Unitate honetan, prentsa txostena eta erakusketa egitea proposatzen zaigu. Prentsa txostena prestatzeko, ikasleek berri bana ekoitzi beharko dute, berri baikorrak. Irakurgaietan talde handian irakurtzeko horren eredu izan daitekeen berri bat (Indiako PCa) eta teknologiaren inguruan hausnarketa txiki bat egiteko testua daude. Ondoren, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko berriaren ekoizpen sekuentzia osatuko dute, euren berria sortzeko asmoz. Ekoizpen sekuentzia hori luzeegia gerta ez dadin, irakasleak erregulatu beharko du, zein ariketa noiz eta nola egin. Tarteka dauden azalpenak, talde handian irakurtzea aholkatzen dizuegu, eta, bestelako jarduerak bakarka egiten badituzte ere, taldean berrikusi (batzuk) edota irakasleak behatu eta gidatu beharko ditu. Gogoan izan, CD-ROMean, antolatzaileak, aditza, deklinabidea, ortografia, siglak... eta abar lantzeko hainbat jarduera dituzuela.

Oharra: hor behekoak lan-koadernoko 70. orrialdeko albisteen titulu originalak dira:

- Txilen 700 ikasletik gora atxilotu dituzte manifestazioetan
- Munduko artista guztientzako erakustokia ipini dute sarean
- Protestak hasi dituzte berriz ere Paris inguruko auzoetan
- Etorkinei buruzko jardunaldiak antolatu dituzte Ermuan

51. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 42. orrialdetik 44.era

Unitate honetan, hainbat eduki (kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko) landu dira. Horietako gehienak prozesuaren baitan behatu eta ebaluatu beharrekoak (informazio bilaketa prentsan, arte hezkuntzako hainbat lan, dramatizazioak, elkarriketak, proiektua bera...) dira, bertan hartzen baitute zentzua. Baina badira beste batzuk, unitate bukaeran ebalua daitezkeenak ere. Orrialde hauek, ikasleei eta baita irakasleei ere, lan horri errazteko pentsatuak eta eginak izan dira. Unitatea bukatu ahala egindako lanari begiratzeko parada emango digute, hainbat balorazio egiteko, ikasleek eurek dakitenaz jabetzeko eta ez dakitenaz ohartuz erreparatu eta ikasi beharrekoa sakontzeko aukera emanez.

52. Hemen edo han, gure Txanelan!

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Talde handian, unitatea landu bitartean bildutako argazkiak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi ondoren, gure albumeko hirugarren atala osatuko dugu. Har ezazue denbora egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.

Musikako lan-koaderno

HIRUGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

3.1

ERRITMO-DIKTAKETA HIRUKO NEURRIAN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Lehendik ere, aurreko ikasturteetan, eginda ditugu hainbat erritmo-diktaketa. Oraingoak berrikuntza bat dakar: hiruko neurria erabiliko dugu.

Laguntze aldera, zelula erritmiko desberdin bakoitzari hots zehatz bat eman diogu. Horrela, BELTZARI danbor hotsa, ZURIAri triangeluarena, eta, azkenik, punttua duen ZURIAri txindataren hotsa eskaini diogu.

Ez legoke gaizki, fitxa egin aurretik, mota honetako zenbait adibide talde osoarekin lantzea. Pertsona bakar batek hiru musika-tresna jotzea ia ezinezkoa denez, ez legoke gaizki gorputz-atalak erabiltzea. Zelula ezberdin bakoitzeko hots bat: txaloak, belau gainak eta kriskitinak, adibidez.

Lehen-lehenik, bi edo lau konpaseko eskema erritmiko bat idatziko genuke arbelean. Eskema hori ahoz irakurri eta gorputz-atalak erabiliz interpretatuko genuke ondoren. Ariketa amaitzeko, irakasleak eta ikasleak batera lan egiteko garaia izango litzateke. Hurrengo urratsa irakasleak egindako eskema paperera pasatzea izango litzateke.

Mota honetako ariketetan garrantzi handia du irakasleak ariketari edo eskemari sarrera egokia ematea. "TENPOA" ongi markatuko duen sarrera. Kasu honetan, hiruko neurriko konpasa izanik, "1", "2", "3" behin edo birritan, erritmoa markatzen hasi aurretik, ahoz esatea ia ezinbestekoa ikusten dugu.

Hauk dira CDan agertzen diren sei eskemak:

1. q q q / q q q / q q q / h. /
2. h. / h. / q q q / h. /
3. q q q / h. / q q q / h. /
4. q q q / q q q / h q / h. /
5. q q q / h q / h q / h. /
6. q q q / h q / q q q / h. /
- 7.

3.2

TXIRULA JOTZEN KASTEN

Lan egiteko era: Talde handian

TXANTXANGORRIA

Lauko neurrian idatzitako euskal kanta aski ezaguna da.

Lehen begiradan, konplikatu samarra izango ote den irudituko zaie ikasleei.

Luzea, nota asko, kortxea ugari... Bai zera! Solfeoari dagokionez, lehen errepasso bat eman ondoren, hara zerekin aurkitzen garen: lehenengo eta hirugarren pentagramak berdin-berdinak direla. Zati horietan, bi nota berdinez osaturiko bikoteka ikus daitezke kortxeak. Gainera, pentagrama bakoitzeko lehen bi konpasak, ondoren, errepikatu egiten dira.

Partituraren azterketa egin ondoren konturatuko gara benetan ez zela hain konplexua. Luzea bai, baina erraza ere bai.

Kantuaren grabaketari dagokionez, diskoaren iraupenak behartuta, lehen bi pentagramak solfeatu ondoren, hirugarrena kantatuta dago. Txirulari dagokionez, partitura osoa grabatu dugu.

3.3

KONPASAK OSATZEN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Konpas bakarreko bederatzi erritmo-marra horiek osatu beharko dira fitxa honetan. Biko, hiruko eta lauko neurrikoak dira, eta bakoitzean aipatzen diren baldintzak kontuan hartuz osatu behar dira.

Erabil daitezkeen zelulak orain arte ikusi, ikasi eta landutakoak dira: biribila, zuriak, beltzak, kortxeak eta kortxeaerdiak.

Aurretik argibide guztiak lasai eman beharko dira, ez baita oso ariketa sinplea, eta ikasle batzuek izango dute burua astindu beharra.

Konpas batzuk ia modu bakar batean bete daitezke. Adibidez, lehenengoa: biko neurriko konpas bat hiru zelula erabiliz osatzeko, beltz bat eta bi kortxea idatziko dituzte gehienek, beste aukera konplikatu samarra baita: puntua duen beltza eta ondoren bi kortxeaerdi; baina, tira, horrek ere balio du.

Kontu izan behar da zenbait ikaslek askotan nahasten duen kontzeptu batekin: kortxea bikotea ez da zelula erritmiko bat, bi zelula baizik.

Egokia izan daiteke denok batera adibide batzuk arbelean lantzea, ondoren bakarkako lanari ekiteko.

3.4

TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian

SOLFERINOKO ITSUA

Aski ezaguna den beste abesti bat da orain aurkezten duguna. Gainera, badu bere historiatxoa:

Solferino Italiako ipar aldean dagoen herri txiki bat da, Lonbardiako lurretan, hain zuzen ere. Han, 1859. urtean eta San Joan egun batez, zelai beteko bataila liskartu zen. Alde batetik, Napoleon III.aren frantziar armada eta bertako lonbardoak independentzia lortzeko egarriz, eta bestetik, Jose Francisco I.a okupatzailearen austriar indarrak.

Guda hartan sortutako sarraskia krudela izan zen. Solferinoko bataila hartan bakarrik, (gehiago izan baitziren guda hartan) 40.000 inguru hildako eta beste hainbat edo gehiago zauritu izan ziren. Orduan sortu omen zen, zaurituak sorotsi eta hildakoak lurperatzeko ideiaz, gaur egun hain ezaguna den “Gurutze Gorria” erakunde neutrala.

Gatazka hartan parte hartu zuen gazte baten historia kontatzen da abesti honetan. Hemen duzuen, lehenengo bertsoa besterik ez da. Bere herrira begiak usu zituela, hau da, itsu, itzuli zenekoa.

Fitxara itzuliz, orain arte ikasitako nota guztiak agertzen dira melodia honetan: beheko DOTik hasi eta goiko MItainokoak, bakar bat ere kanpoan utzi gabe.

Lan egokia egiteko, jarraitu ohiko prozedurari.

3.5

TXALAPARTAN

Lan egiteko era: Bakarka

Aurreko batean, 1.6 fitxan, antzeko ariketa burutu genuen. Baina, orduan, eskuekin belaun-gainak kolpatzeko agindua eman genuen. Oraingoan, txalapartari-itxura nabarmenagoa izango dugu.

Esku bakoitzean, soinu ezberdina aterako duten arkatz, bolaluma edo errotulagailu bana hartzea proposatzen dugu. Beste edozein material ere onargarria da, hala nola burdin zatiak, makilak, hodiak, etab.

Ezkerreko eskuan dugun objektuak soinu jakin bat aterako du eta eskuinekoak beste bat. Zenbait kasutan, une berean atera beharko dute hotsa, beheko eta goiko marrako zelulak batera agertzen direnean, baina gehienetan aldizkatuz.

1.6 fitxako ariketan egin genuen moduan, nahi izanez gero, ahozko irakurketa egin genezake lehenik, marra bakoitzeko zelulei hots bana egokituz.

3.6

ERRITMOAREN SEKUENTZIAK

Lan egiteko era: Bakarka

Marrakiz osaturiko hiru sekuentzia ditugu begi bistan. Eta, ondoren, erantzun beharreko hainbat galdera.

Lehenengo sekuentzian, hiru irudi behin eta berriro errepikatzen direla ikus daiteke. Eguzkiak, kuboak eta pilotak hiruko neurriaren adierazle den sekuentzia

osatzen dute. Irudiak hiru alditan agertzen direnez, sekuentzia hori hiru konpasetan zatitua dagoela esan daiteke.

Bigarrengean, arkatzak eta koadernoak ikus daitezke, biko neurriko sei konpaseko sekuentzia osatuz.

Eta azkenik, lauko neurriaren isla, lau elementu geometriko erabiliz, hiru konpasez osaturiko sekuentzia daukagu.

Orrialde honetako lanak amaitzeko, hona beste proposamen bat. Ikasleek, nahi duten neurria, konpas kopurua eta irudiak erabiliz, bi sekuentzia asmatu beharko dituzte.

3.7

TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

POZ-POZIK

Orkestratxoarekin jarraitzeko asmoa dugu, eta kantu hau ere horretarako prestatu dugu. Dena den, ez dago esan beharrik, kanta guztietan duzuela musika-tresna gehiago erabiltzeko aukera.

Oraingoan ere talde desberdinetan banatuko dugu lana. Abeslariak, txirulariak eta klabe- eta triangelu-jotzaileak. Hala ere, lehenago esan dugun moduan, ez ahaztu denek dena egiten ikastea komeni dela.

Kantatzeko garaia denean, denok har genezake parte. Klabeak jotzea suertatu zaionak abes lezake, baita triangelua eskuetan duenak ere. Agian, hasieran, kosta egingo zaie bi lanak batera burutzea, baina gogo pixka batekin eta “entrenamenduak” eginez, lor daitekeela uste dugu.

Txirula jotzeko garaia iristen denean, orduan bai, bakoitzak bere lanari ekin beharko dio, zail samarra iruditzen baitzaigu bi musika-tresna batera jotzea.

Perkusioari dagokionez, triangeluaren zeregina oso sinplea da: konpasaren lehen taupadak denbora “fortea” markatuko du, abesti osoan zehar berdina joz. Gogoratu “ostinato” esaten diogula horri. Klabeek, triangeluaren ondoren, konpasa osatzeko falta diren bi taupadak markatuko dituzte. Tresna horrek ere ia “ostinato” bat burutu behar du, baina lehen pentagramaren azken konpasa ez da beste guztien berdina, eta, horregatik, adi egoteko eskatu behar zaie klabeak jotzea tokatu zaienei.

3.8

NOTAK

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

PISTEI JARRAITUZ, ERANTZUNA AURKITU

Gaurkoan, detektibeetan jolastuko dugu. Baldintza batzuk ematen ditugu, eta ondorioa atera behar da.

Pentagramaren eta noten kokapenarekin jolastu nahi izan dugu, grabea eta agudoa hitzak erabiliz. Marrak eta tarteak ere aipatzen ditugu. Pentagrama-barneko eta -kanpoko notekin ere adi egon beharko da. Azkenik, txirula ere sartu nahi izan dugu jolas honetan.

Irakasleak, laguntze aldera, betiere, arbelean pentagrama bat marraztu eta zenbait adierazpen luza ditzake, beharrezkoa jotzen badu. Adibidez:

- “Sol” baino agudoagoak eta grabeagoak zein diren ikusarazi.
- Nota batzuk pentagrama barnean eta beste batzuk kanpoan kokatzen direla adierazi, eta gogoratu zein ikusi ohi ditugun kanpoan.
- Nota batzuk marretan eta beste batzuk tarteetan kokatuta egoten direla gogoratu.

Hauek dira erantzunak:

1. FA
2. DO' (goikoa)
3. RE' (goikoa)
4. RE (behekoa)

3.9

ZINEMA ETA MUSIKA

Lan egiteko era: Bakarka

Betidanik izan dute lotura estua zinemagintzak eta musikak. Hitza baino lehenago iritsi zen musika zinearen mundura. Charles Chaplinen edo Buster Keetonen hainbat eta hainbat film ikusi izan ditugu azpitoluekin, eta pianoaren musika bakarrik entzun ere bai egoera ezberdinen adierazle.

Interesgarria izango litzateke horietako film bat gelan ikustea, egoera ezberdin bakoitzean musika nola aldatzen zen jabetzeko.

CDan aurkezten dugun ariketa honetarako lau musika-pasarte aukeratu ditugu. Ikasleek, zine zuzendari lanak eginez, musika bakoitza aldamenean jarri ditugun egoera baterako aukeratu beharko dute. Aukera librea izango da eta emaitza ere bai, gustuak ebaluatzea ez baita erraza.

Entzunaldi luzeagoak egin nahi izatera, lau musika zatiak nondik jaso ditugun adierazten dizuegu jarraian:

1. “Hidden dragon” filmetik.
2. Saint-Saëns musikagilearen “Zisnea”, “Animalien inauteria” izeneko obratik.
3. “Superman” filmetik.
4. “Apocalipsis now” filmetik. (R.Wagner, “Walkirien kabalgata)

Oharra: oso gai polita izan daiteke hau eta luze hitz egin daiteke filmetarako musika konposatzaileei buruz. Euskal Herrian ere baditugu, Anjel Illarramendi, adibidez.

Ikasleek ikusten dituzten filmetan, konturatzen ote dira nork egin duen musika? Eska iezaiozue ikusten duten hurrengo filmean erreparatzeko musikari, eta saiatzeko musika hori konposatu duenari buruzko informazioa lortzen. Etxean egiteko lan polita, ezta?

ABESTIA

TXINBA TXIN

A

*Jo turutak,
eta jo tronboiak,
txindatak, danborrak,
dunbak jotzen hasi,
inauteri jaiak
bizitzen ikasi.*

B

*Txinba-txin txinba-txinba,
txinba-txin txinba-txinba,
txinba-txin txinba-txinba,
txinba txin-txin.
Inauteri jaiak
bizitzen ikasi.*

Bi ahotsetan kantatzeko kanona da hau. Lantzeko prozedura betikoa da:

1. Guztiok batera ikasi eta memorizatu abestia.
2. Bi talde egin eta bakoitzak kanta dezala, ongi ikasi dutela ziurtatzeko.
3. Hasi denak batera hasieratik (Tuti).
4. Hasi 1 taldea.
5. Hasi 2 taldea hasieratik, lehenengo taldea B zatira iristean.

Ez ahaztu kantatzen dugun bitartean keinuak egitea (turuta-jotzailea, tronboi-jotzailea, txindata-jotzailea, danbor-jotzailea, dunba-jotzailea, maraka-jotzailea...), izan ere keinuek abestia memorizatzen lagunduko dute.

Musikako lan-koadernoak

HIRUGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

3.1 Erritmo-diktaketa hiruko neurrian

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 21. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 13. pista

Lehendik ere, aurreko ikasturteetan, eginda ditugu hainbat erritmo-diktaketa. Oraingoak berrikuntza bat dakar: hiruko neurria erabiliko dugu.

Laguntze aldera, zelula erritmiko bakoitzari hots zehatz bat eman diogu. Horrela, BELTZARI danbor hotsa, ZURIAri triangeluarena, eta, azkenik, punttua duen ZURIAri txindataren hotsa eskaini diogu.

Ez legoke gaizki, fitxa egin aurretik, mota horretako zenbait adibide talde osoarekin lantzea. Pertsona bakar batek hiru musika-tresna jotzea ia ezinezkoa denez, ez legoke gaizki gorputz-atalak erabiltzea. Zelula bakoitzeko hots bat: txaloak, belaun gainak eta kriskitinak, adibidez.

Lehen-lehenik, bi edo lau konpaseko eskema erritmiko bat idatziko dugu arbelean. Eskema hori ahoz irakurri eta gorputz-atalak erabiliz interpretatuko dugu ondoren. Ariketa amaitzeko, irakasleek eta ikasleak batera lan egiteko garaia izango da. Hurrengo urratsa irakasleak egindako eskema paperera pasatzea izango da.

Mota honetako ariketetan garrantzi handia du irakasleak ariketari edo eskemari sarrera egokia emateak. "TENPOA" ongi markatuko duen sarrera. Kasu horretan, hiruko neurriko konpasa izanik, "1", "2", "3" behin edo birritan, erritmoa markatzen hasi aurretik, ahoz esatea ia ezinbestekoa ikusten dugu.

Hauek dira CDan agertzen diren sei eskemak:

1. q q q / q q q / q q q / h . /
2. h . / h . / q q q / h . /
3. q q q h . / q q q / h . /
4. q q q / q q q / h q / h . /
5. q q q / h q / h q / h . /
6. q q q / h q / q q q / h . /
- 7.

3.2 Txirula jotzen kasten

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 22. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 14. pista

TXANTXANGORRIA

Lauko neurrian idatzitako euskal kanta aski ezaguna da.

Lehen begiradan, konplikatu samarra izango ote den irudituko zaie ikasleei.

Luzea, nota asko, kortxea ugari... Bai zera! Solfeoari dagokionez, lehen errepasso bat eman ondoren, hara zerekin aurkitzen garen: lehenengo eta hirugarren pentagramak berdinean direla. Zati horietan, bi nota berdinez osaturiko bikoteka ikus daitezke kortxeak. Gainera, pentagrama bakoitzeko lehen bi konpasak, ondoren, errepikatu egiten dira.

Partituraren azterketa egin ondoren konturatuko gara benetan ez zela hain konplexua. Luzea bai, baina erraza ere bai.

Kantuaren grabaketari dagokionez, diskoaren iraupenak behartuta, lehen bi pentagramak solfeatu ondoren, hirugarrena kantatuta dago. Txirulari dagokionez, partitura osoa grabatu dugu.

3.3 Konpasak osatzen

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 23. or.

Konpas bakarrek bederatziko erritmo-marra horiek osatu beharko dira fitxa honetan. Biko, hiruko eta lauko neurrikoak dira, eta bakoitzean aipatzen diren baldintzak kontuan hartuta osatu behar dira.

Erabil daitezkeen zelulak orain arte ikusi, ikasi eta landutakoak dira: biribila, zuriak, beltzak, kortxeak eta kortxeaerdiak.

Aurretik argibide guztiak lasai eman beharko dira, ez baita oso ariketa sinplea, eta ikasle batzuek izango dute burua astindu beharra.

Konpas batzuk ia modu bakar batean bete daitezke. Adibidez, lehenengoa: biko neurriko konpas bat hiru zelula erabiliz osatzeko, beltz bat eta bi kortxea idatziko dituzte gehienek, beste aukera konplikatu samarra baita: punttua duen beltza eta ondoren bi kortxeaerdi; baina, tira, horrek ere balio du.

Kontuan izan behar da zenbait ikaslek askotan nahasten duen kontzeptu bat: kortxea bikotea ez da zelula erritmiko bat, bi zelula baizik.

Egokia izan daiteke denok batera adibide batzuk arbelean lantzea, ondoren bakarkako lanari ekiteko.

3.4 Txirula jotzen ikasten

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 24. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 15. pista

SOLFERINOKO ITSUA

Aski ezaguna den beste abesti bat aurkezten dugu. Gainera, badu bere historiartxoak:

Solferino Italiako iparraldeko herri txiki bat da, Lonbardiako lurretan, hain zuzen ere. Han, 1859. urtean eta San Joan egun batez, zelai beteko gudu liskartsua izan zen. Alde batetik, Napoleon III.aren frantziar armada eta bertako lonbardoak independentzia lortzeko egarritik, eta bestetik, Frantzisko Josef I.a okupatzailearen austriar indarrak.

Gerra hartako sarraskia krudela izan zen. Solferinoko gudu hartan bakarrik, 40.000 inguru hildako eta beste hainbat edo gehiago zauritu izan ziren. Orduan sortu omen zen, zaurituak sorosteko eta hildakoak lurperatzeko ideiaz, gaur egun hain ezaguna den "Gurutze Gorria" erakunde neutrala.

Gatazka hartan parte hartu zuen gazte baten historia kontatzen da abesti horretan. Hor duzuen, lehenengo bertsoa besterik ez da. Bere herrira begiak *usu* zituela, hau da, itsu, itzuli zenekoa.

Fitxara itzuliz, orain arte ikasitako nota guztiak agertzen dira melodia honetan: beheko DOTik hasi eta goiko MIRainokoak, bakar bat ere kanpoan utzi gabe.

Lan egokia egiteko, jarraitu ohiko prozedurari.

3.5 Txalapartan

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 25. or.

Aurreko batean, 1.6 fitxan, antzeko ariketa egin genuen. Baina, orduan, eskuekin belaun-gainak kolpatzeko agindua eman genuen. Oraingoan, txalapartari-itxura nabarmenagoa izango dugu.

Esku bakoitzean, soinu ezberdina aterako duten arkatz, bolaluma edo errotulagailu bana hartzea proposatzen dugu. Beste edozein material ere onargarria da, hala nola, burdin zatiak, makilak, hodiak, etab.

Ezkerreko eskuan dugun objektuak soinu jakin bat aterako du, eta eskuinekoak beste bat. Zenbait kasutan, une berean atera beharko dute hotsa, beheko eta goiko marrako zelulak batera agertzen direnean, baina gehienetan aldizkatu egin beharko dira.

1.6 fitxako ariketan egin genuen moduan, nahi izanez gero, ahozko irakurketa egin genezake lehenbizi, marra bakoitzeko zelulei hots bana egokituz.

3.6 Erritmoaren sekuentziak

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 26. or.

Marrazkiz osaturiko hiru sekuentzia ditugu begi-bistan, eta, ondoren, erantzun beharreko hainbat galdera.

Lehenengo sekuentzian, hiru irudi behin eta berriro errepikatzen direla ikus daiteke. Eguzkiak, kuboak eta pilotak hiruko neurriaren adierazle den sekuentzia osatzen dute. Irudiak hiru alditan agertzen dira, beraz, sekuentzia hori hiru konpasetan zatitua egongo da.

Bigarrenengan, arkatzak eta koadernoak ikusten dira, biko neurriko sei konpaseko sekuentzia osatuz.

Eta azkenik, lauko neurriaren isla, lau elementu geometriko erabiliz, hiru konpasez osaturiko sekuentzia daukagu.

Orrialde honetako lanak amaitzeko, hona beste proposamen bat. Ikasleek, nahi duten neurria, konpas kopurua eta irudiak erabiliz, bi sekuentzia asmatu beharko dituzte.

3.7 Txirula jotzen ikasten

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 27. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 16. pista

POZ-POZIK

Orkestratxoarekin jarraitzeko asmoa dugu, eta kantu hau ere horretarako prestatu dugu. Dena den, ez dago esan beharrik, kanta guztietan duzuela beste musika-tresna batzuk erabiltzeko aukera.

Oraingoan ere taldetan banatuko dugu lana. Abeslariak, txirulariak eta klabe- eta triangelu-jotzaileak. Hala ere, lehenago esan dugun moduan, ez ahaztu denek dena egiten ikastea komeni dela.

Kantatzeko garaia denean, denok har genezake parte. Klabeak jotzea egokitu zaionak abestu egingo du, baita triangelua eskuetan duenak ere. Agian, hasieran, kosta egingo zaie bi lanak batera burutzea, baina gogo pixka batekin eta “entrenamenduak” eginez, lor daitekeela uste dugu.

Txirula jotzeko garaia iristen denean, orduan bai, bakoitzak bere lanari ekin beharko dio, zail samarra iruditzen baitzaigu bi musika-tresna batera jotzea.

Perkusioari dagokionez, triangeluaren zeregina oso sinplea da: konpasaren lehen taupadak denbora “forte” markatuko du, abesti osoan zehar gauza bera joz. Gogoratu “ostinato” esaten diogula horri. Klabeek, triangeluaren ondoren, konpasa osatzeko falta diren bi taupadak markatuko dituzte. Tresna horrek ere ia “ostinato” bat egin behar du, baina lehen pentagramaren azken konpasa ez da beste guztien berdina, eta, horregatik, adi egoteko eskatu behar zaie klabeak jotzea tokatu zaienei.

3.8 Notak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 28. or.

PISTEI JARRAITUZ, ERANTZUNA AURKITU

Gaurkoan, detektibeetan jolastuko dugu. Pista batzuk ematen ditugu, eta ondorioa atera behar da.

Pentagramaren eta noten kokapenarekin jolastu nahi izan dugu, grabea eta agudoa hitzak erabiliz. Marrak eta tarteak ere aipatzen ditugu. Pentagrama-barneko eta -kanpoko notekin ere adi egon beharko da. Azkenik, txirula ere sartu nahi izan dugu jolas honetan.

Irakasleak, laguntze aldera, betiere, arbelean pentagrama bat marraztu eta zenbait adierazpen luza ditzake, beharrezkoa jotzen badu. Adibidez:

- “Sol” baino agudoagoak eta grabeagoak zein diren ikusarazi.
- Nota batzuk pentagrama barnean eta beste batzuk kanpoan kokatzen direla adierazi, eta gogoratu zein ikusi ohi ditugun kanpoan.
- Nota batzuk marretan eta beste batzuk tarteetan kokatuta egoten direla gogoratu.

Hauek dira erantzunak:

1. FA
2. DO’ (goikoa)
3. RE’ (goikoa)
4. RE (behekoa)

3.9 Zinema eta musika

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 29. or./CDa, Musika 5, jarduerak, 17. pista

Betidanik izan dute lotura estua zinemagintzak eta musikak. Hitza baino lehenago iritsi zen musika zinearen mundura. Charles Chaplinen edo Buster Keetonen hainbat eta hainbat film ikusi izan ditugu azpituluekin, eta pianoaren musika bakarrik entzun ere bai, hainbat egoeraren adierazle.

Interesgarria izango litzateke horietako film bat gelan ikustea, egoera bakoitzean musika nola aldatzen zen jabetzeko.

CDan aurkezten dugun ariketa honetarako lau musika-pasarte aukeratu ditugu. Ikasleek, zine-zuzendari lanak eginez, musika bakoitza aldamenean jarri ditugun egoera baterako aukeratu beharko dute. Aukera libreza izango da eta emaitza ere bai, gustuak ebaluatzea ez baita erraza.

Entzunaldi luzeagoak egin nahi izatera, lau musika zatiak nondik jaso ditugun adierazten dizuegu:

1. *Hidden dragon* filmetik.
2. Saint-Saëns musikagilearen *Zisnea, Animalien inauteria* obratik.
3. *Superman* filmetik.
4. *Apocalipsis now* filmetik. (R. Wagner, *Walkirien kabalgata*)

Oharra: oso gai polita izan daiteke hau eta luze hitz egin daiteke filmetarako musika konposatzaileei buruz. Euskal Herrian ere baditugu, Anjel Illarramendi, adibidez.

Ikasleek ikusten dituzten filmetan, konturatzen ote dira nork egin duen musika? Eska iezaiozue ikusten duten hurrengo filmean erreparatzeko musikari, eta saiatzeko musika hori konposatu duenari buruzko informazioa lortzen. Etxean egiteko lan polita, ezta?

Lan-koadernotik aparteko kanta: *Txinba-txin*

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak, 18. pista

Txinba-txin

A

*Jo turutak,
eta jo tronboiak,
txindatak, danborrak,
dunbak jotzen hasi,
inauteri jaiak
bizitzen ikasi.*

B

*Txinba-txin txinba-txinba,
txinba-txin txinba-txinba,
txinba-txin txinba-txinba,
txinba txin-txin.
Inauteri jaiak
bizitzen ikasi.*

Bi ahotsetan kantatzeko kanona da hau. Lantzeko prozedura betikoa da:

1. Guztiok batera ikasi eta memorizatu abestia.
2. Bi talde egin eta bakoitzak kanta dezala, ongi ikasi dutela ziurtatzeko.
3. Hasi denak batera hasieratik (Tuti).
4. Hasi 1 taldea.
5. Hasi 2 taldea hasieratik, lehenengo taldea B zatira iristean.

Ez ahaztu kantatzen dugun bitartean keinuak egitea (turuta-jotzailea, tronboi-jotzailea, txindata-jotzailea, danbor-jotzailea, dunba-jotzailea, maraka-jotzailea...), izan ere keinuek abestia memorizatzen lagunduko dute.